


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Gizarte Hezkuntzako Gradua

2015-2016 Ikasturtea

**IKAS KOMUNITATEAK ETA
GENERO INDARKERIAREN PREBENTZIOA:
*ARRAKASTAZKO HEZKUNTZA JARDUEREN
ERAGINA***

Egilea: Iker de Luz Colás

Zuzendaria: Nekane Beloki Arizti

Leioan, 2015eko irailaren 10ean

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. MARKO TEORIKOA.....	4
1. Ikas komunitateen marko sozio-hezitzailea: informazioaren jendartearen teoria.....	5
2. Ikaskuntza dialogikoa informazioaren jendartean.....	8
3. Ikas komunitateak eta arrakastazko hezkuntza jarduerak.....	9
4. Feminismo dialogikoa eta jendarteratze prebentiboa Ikas Komunitateetan.....	12
3. MARKO METODOLOGIKOA.....	16
1. Helburu orokor eta espezifikoak.....	16
2. Egokitzapena eta erabilitako teknikak.....	17
4. LANAREN GARAPENA ETA EMAITZAK.....	19
1. Aztertutako kasua.....	19
2. Lortutako emaitzak.....	21
5. ONDORIOAK.....	34
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	36

LABURPENA

Asko dira egungo jendartearen aldaketei buruz idatzi diren ikerketa, liburu eta artikulak. Asko dira ere egungo jendartearen beharrei erantzuteko asmoz jaio edota eraldatu diren eskola eta proiektuak. Horien artean Ikas Komunitateak informazioaren jendartearen beharrei erantzuteko asmoz Nazioarteko Komunitate Zientifikoak baieztatutako Arrakastazko Hezkuntza Jardueretan oinarritzen dute euren jarduna. Jarduera hauek ikasle guztientzako eskola arrakasta eta elkarbizitzaren hobekuntza eragiten dutela luze eta zabal ikertua izan da. Ikerketa honen bidez, espezifikoki genero indarkeriaren prebentzioari begira jarduera hauek duten eragina aztertu dugu.

Hitz gakoak: ikas komunitateak, hezkuntza, jendarteratze prebentiboa, genero indarkeria.

RESUMEN

Son muchas las investigaciones, libros y artículos que han sido escritos sobre los cambios que se están dando en sociedad actual. Son muchas también las escuelas y proyectos que están naciendo y transformándose para responder a las necesidades de la sociedad de la información. Las Comunidades de Aprendizaje pretenden responder a esas necesidades partiendo de las Actuaciones Educativas de Éxito demostradas por la Comunidad Científica Internacional. Diversas investigaciones han demostrado cómo estas actuaciones han servido para conseguir el éxito académico de todos y todas, y la mejora de la convivencia. Mediante esta investigación, hemos querido analizar el impacto que tienen dichas actuaciones en la prevención de la violencia de género en los centros educativos.

Palabras clave: comunidades de aprendizaje, educación, socialización preventiva, violencia de género.

ABSTRACT

Many investigations, books and articles have been written on the changes that are taking place in current society. Many schools are being born and others are transforming themselves to respond to the needs of the informational society. Learning Communities aim to respond to those needs based on the Activities of Educational Success demonstrated by the International Scientific Community. Several investigations have shown how these actions have served to achieve academic success for all, and the improvement of the connivance. Through this research, we have analyzed the impact of such interventions in the prevention of gender violence in schools.

Key words: learning communities, education, preventive socialization, gender violence.

1. SARRERA

Asko dira egungo jendartearen aldaketa azkar eta anitzei buruz idatzi diren ikerketa, liburu eta artikuluak. Ez da harritzekoa, izan ere, duela hamarkada ugari arte hain presente zegoen jendarte eredu industrial hura, formaz eta edukiz nabarmen aldatzen ari da. Bere zirrikituen artean informazioa, komunikazioa eta teknologia erdigunean kokatzen duen jendarte eredu berri bat agertzen ari da: informazioaren jendarte.

Ez dira gutxi aldaketa hauekin batera jendartearen biraketa dialogikoaz hitz egiten hasi diren egileak (Elboj & Gomez, 2001). Izan ere, jendarte industrialeko instituzio eta ziurtasun tradizionalak legitimotasuna galdu eta desegiten hasi dira (Giddens, 1996); eta gero eta gehiago, erabakiak, arauak, jakintzak... elkarrizketaren bidez adostuak izan behar dira onartuak izan daitezen.

Aldaketa ezberdinen zurrumbilo honetan, ordea, asko eta asko dira aldatu ez diren gauzak: ezberdintasun sozialek, esplotazioak, pobrezia, bazterketak eta genero indarkeriak oraindik ere, gure herri eta hirietako eguneroko oigia izaten jarraitzen dute. Ondorioz, egungo jendarteak erronka berriak jartzen dizkigu mahai gainean, eta horrekin batera, arazo zaharrei konponbidea ematearen premia gero eta handiagoa da.

Eskola ez da jendartearekiko eta bere arazo zein erronkekiko isolatua bizi den instituzio bat. Kontrara, honen eragina jasotzen duen hein berean, haur eta gazteen jendarteratze prozesuko eragile nagusienetako bat izaten jarraitzen du. Hori dela eta, momentuko jendarte ereduarekin lotura estua izan behar du, baina aldi berean, jendarte eraldaketarako lan egin behar du bizitzaren hobekuntza helburu baldin badugu.

Norabide horretan lan egiteko asmoarekin sortu edota aldatu diren eskolak eta proiektuak ugariak eta oso anitzak dira. Asko hitz egiten da egungo jendartearen erronkei erantzuteaz, baina ez dira hainbeste aurretik aipatutako arazoak gainditu, eta emaitza akademikoak zein elkarbizitza nabarmen hobetzen duten proiektuak. Zeregin handi honetarako, berrikuntzak asmatzea baino, eraginkortasun probatuak dituzten neurri eta alternatibak martxan jartzea lehentasunezkoa da.

Ikas Komunitateak Nazioarteko komunitate zientifikoaren ikerketen emaitzetan oinarritutako proiektuak dira. Eta eskola inguratzen duen komunitate osoaren kideen berdinaren arteko elkarrizketaren bidez, eskola porrota eragiten duten zailtasunak ezabatzea bilatzen dute.

Hori dela eta, Gradu ikasketan zehar landu ditugun balio eta profesionaltasun ereduaren oinarrituta, egungo jendartearen erronka eta arazoei erantzuteko proiektu egokiak izan ahal dira.

Gainera, eraginkortasun probatua duten hezkuntza jarduerak eskola zehatz batean aplikatzerako orduan gertatzen dena ezagutzeko ikerketa eremu interesgarria izan daitezke.

Proiektu hauen zutabe nagusietako bat elkarbizitza da, eta elkarbizitzarengan eragin zuzena du indarkeriak. Askotan pentsatzen denaren kontrara, Lehen Hezkuntzako ikasleen harremanetan genero indarkeriaren lehen hastapenak oso ohikoak dira, eta horregatik Ikas Komunitateetan prebentzioak berebiziko garrantzia hartzen du. *Gatazken prebentzioa eta konponketarako eredu dialogikoa*, hain zuzen ere, Ikas Komunitateen proiektuaren baitako arrakastazko hezkuntza jardueretako bat da. Eta *Jendarteratze Prebentiboa* bitartean, honi genero ikuspegia txertatuz oraingo eta etorkizuneko genero indarkeria saihesteko tresna, eta hezkuntza arloko ikerketan zabaltzen ari den fronte sakon eta interesgarri bat.

Nire lanaren bidez, jendarteratze prebentiboari begira espresuki sortzen diren egitasmo eta mekanismoetatik haratago, gainontzeko arrakastazko hezkuntza jardueren bidez indarkeriaren prebentzioari begira lortzen dena, eta lortzeke dagoena ikertu nahi izan dut. Horrela, Gradu Amaierako Lan honekin, hiru urtez nire bolondres eta praktiketako jardueraren “habia” izan den Elejabarri Ikas Komunitateari ekarpena egin nahi izan diot: eskolako komunitatearekin batera egindako elkarrizketa eta eztabaiden bidez, eskolan bertan indarkeria modu eraginkorragoan prebenitu eta elkarbizitza hobetzeko eraldaketetan sakontzeko jakintzak elkarrekin eratuz.

Ikerketa honen helburua beraz, nazioarteko komunitate zientifikoak baieztatutako arrakastazko hezkuntza jarduerak eskola batean martxan jartzen hastean, indarkeriaren prebentzioarengan eta elkarbizitzaren hobekuntzarengan duten eragina aztertzea da. Datu bilketa eredu komunikatiboaren bidez (Ikas Komunitateen ereduarekin koherentzian), arrakastazko hezkuntza jardueren arteko loturak indartu eta eskolan elkarbizitza hobetzeko estrategiak eta erronkak identifikatu nahi izan ditugu.

2. MARKO TEORIKOA

Ikas Komunitateak hezkuntza eta jendarte eraldaketarako proiektuak dira, ikas zentroetan hainbat aldaketa gauzatzearen bidez, egungo jendarte ereduan ditugun erronkei erantzuteko helburuarekin sortuak izan direnak (CREA, 2013). Hauetan aurrera eramaten den hezkuntza eredu nazioarteko teoria zientifikoetan oinarritzen da, ikaspen prozesuarentzat egungo jendarte ereduan gakoak diren bi faktore nagusi azpimarratuz: *interakzioak* eta *komunitatearen parte hartzea*.

Berdintasuna oinarri hartuta, ikasle guztientzako benetako eskola arrakasta lortzeko egiten da lan Ikas Komunitateetan. Horretarako, ikasleen ikaspen prozesuan modu zuzen edo zeharkakoan eragiten duten pertsona guztiak inplikatzeko bilatzen da: ikasleak, irakasleak, famili-kideak, lagunak, auzokideak, elkarrekinak, bolondresak... Guztiok batera, ikasle guztien bizitzak hobetzeko egiten da lan, agertzen diren zailtasunak aukera bihurtuz: *“Komunitate osoaren ametsetatik abiatuta, eta elkarrekin eta zientzia zutabe hartuta, helburu bikoitza lortzen ari den proiektua da: eskola porrota gainditu eta elkarbizitza hobetzea.”* (CREA, 2013: 4)

Gradu Amaierako lan honen bidez, Ikas Komunitateetan aurrera eramaten diren Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak genero indarkeriaren prebentzioari begira (eta horrekin, elkarbizitza hobetzeari begira) duten eragina aztertu nahi dugu.

Proiektuaren funtsa ulertzeko ordea, beharrezkoa da egungo jendarte ereduari buruzko teoriak ondo ezagutzea. Izan ere, horietan oinarritzen dira Ikas Komunitateetan aurrera eramaten diren *arrakastazko hezkuntza jarduerak*, aurrerago definitu eta azalduko ditugunak.

Horretarako, marko teorikoaren *lehenengo atalean informazioaren gizarteari buruzko kontzeptualizazioa* eta egile ezberdinen obra esanguratsuenetan oinarritutako ekarpenak bilduko ditugu. *Bigarren atalean*, guzti honetan oinarrituta dagoen eta CREA-k (Ezberdintasunen Gainditzeko Teoria eta Praktiken Ikerketa Zentrua, Bartzelonako Unibertsitatekoa) sortu duen **ikaskuntza dialogikoa**-ren teoria eta bere 7 printzipioak azalduko ditugu. *Hirugarren atalean*, Ikas Komunitateen jatorri bezala uler daitezkeen proiektuak aipatu eta gaur egungo proiektuaren ezaugarriak azaltzera joko dugu, bereziki **Arrakastazko Hezkuntza Jardueretan** sakonduz. Azkenik, *laugarren atalean*, feminismo dialogikoak egindako ekarpenak (Piugvert, 2001) oinarri hartuta, Gradu Amaierako Lan honen muina den, eta genero ezberdintasunak zein bereziki genero indarkeria ekiditeko beharrezko **Jendarteratze Prebentiboaren** proposamena (Flecha, Puigver & Redondo, 2005) azalduko dugu, horrekin, ikertu dugun kasuaren deskribapenera jauzi egiteko beharrezko oinarri teorikoa osatuz.

2.1. IKAS KOMUNITATEEN MARKO SOZIO-HEZITZAILEA: INFORMAZIOAREN JENDARTEAREN TEORIA

Zientzia sozialetako egungo teoria nagusien arabera, baliabide materialen gainetik baliabide intelektualak lehenesten diren jendarte eredua zabaltzen ari da gure artean, aldaketei egokitzeko eta komunikatzeko gaitasuna gero eta balio gehiago duten ezaugarriak izanik (Valls, 1999). Era berean, erreferentzialtasun marko pertsonal eta kolektibo tradizionalak krisian daude, zalantzan jarri eta aldaketa handiak gertatzen ari dira. Guzti hau dela eta, informazioa eta komunikazioa gero eta faktore sozial esanguratsuagoa dela azpimarratzen da, eta hortik datorkio “**informazioaren jendarte**” izendapena. Jendarte eredu berri hau zabalpen prozesuan egonik, ez du mundu osoan edota pertsona guztiengan eragina izan, eta horregatik definizio zurrun bat egitea baino, ezaugarri komunak bildu izan dituzte teoriko ezberdinek, besteak beste Manuel Castells-ek (2005).

Maria Rosa Valls-ek bere tesian (1999) ondo laburbiltzen duen bezala, informazioaren jendarte jendarte eredu global eta elkar-lotua da. Globalizazio prozesuaren bidez, prozesu ekonomiko guztiak elkarren artean harremandu dira, mundu mailako sare edo unitate bezala funtzionatuz. Produkzio eredu kapitalista erabat hegemonikoa den arren, honek hartzen dituen formak inoiz baino anitzagoak dira. Aniztasun hau gertatzen da, produkzioa produktu edota baliabide materialetan baino, baliabide intelektualetan oinarritzen delako: “*Por primera vez en su historia, la mente humana es una fuerza productiva, no sólo un elemento dentro del sistema de producción.*” (Castells, 2005:58)¹.

Lehia biziaren ondorioz, langileon *ezagutza tazittoa* (hau da, produkzio prozesuaren edo produktuaren hobekuntzarako balio dezakeen jakintza) aktibatzea geroz eta ezinbestekoagoa egiten ari da enpresetan, eta ondorioz, “jabeak beti arrazoa izatearen” ulerkera geroz eta zentzugabeagoa da (Valls, 1999). Horren ordez, aurreikusi zenaren kontrara, antolakundeak des-burokratizatzen eta aldaketa azkarrei egokitzen saiatzen ari dira. Gero eta gehiago, antolakunde batean jakintza sortu, antolatu eta partekatzeko gaitasuna lehiakortasunerako abantaila bat da (Valls, 1999), eta aldi berean langileon defentsarako tresna bat (gure lanarekiko *balio gehigarri* bezala).

Honek guztiak informazioaren jendartean kulturak hartzen duen balioa eta papera asko aldatzen ari dela erakusten digu. Dena den, ezin dugu ahaztu honek ez duela *per se* jendarte

1 Horren adibide bezala ulertu daiteke informazioa lehengai bezala erabiltzen duten gero eta enpresa eta lanbide gehiago egotea (burtsako langileak, abokatuak, aholkulariak, merkatu ikerlariak...). Beste kasu askotan ordea, jarduera produktibo mota bera aldatu ez den arren (produkzio materiala egiten jarraitzea, kasu), hizkuntza eta sinboloen trataerarekin zerikusia duten jarduerak zentraltasun eta garrantzia berezia hartu dute (Valls, 1999).

ezberdintasunekin amaitzeko joera sortzen. Lanak sortzen dituen irabazien berenganatzea, banaketa eta erabilera kapitalisten klasearen interesen esku eta euren mesedera jarraitzen du egoten (Valls, 1999). Ondorioz klaseetan banatutako jendartearen estratifikazioa egun ere mantentzen den zerbait da.

Azken urteetan globalizazioaren ondorioz, izaera industrialagoa duten lan postuak deslokalizatu eta lan indarraren kostu baxuagoak dituzten herrialdeetara mugitzen ari dituzten bitartean, gure herrian kualifikazioa eskatzen duten lanak ugaritzen ari dira. Horien artean jakintza eta gaitasun batzuk beste hainbatekiko nagusitzen ari dira, produkzio prozesuari balio erantsi handia gehitzen diotelako (aurretik aipatu bezala). Azken lan erreformen bidez, kontratazioa eta lan harremanak indibidualizatzen ari direnez, langileen arteko bereizketa oso nabarmenak sortzen ari dira: informazioaren prozesamenduarekin lotutako jakintza eta gaitasun horiek dituztenen eta ez dituztenen artekoak. Lehenek enpleguaren bidez sostengua lortzeko aukera dute. Bigarrenek ordea, oso aukera gutxi dituzte, eta beraz, bazterketa bizitzeko aukera handiak dituzte (langabezia edota lan prekarioak bizitzeko askoz aukera handiagoak dituztelako). Enpleguak bizitzaren sostengurako duen pisua ezagututa, informazioa prozesatzeko gaitasuna (edo gaitasun eza) inklusio edo bazterketaren gakoa bihurtzen ari dela baieztatu dezakegu, gaitasun teknikoen gainetik (Bell, 1976; Gorz, 1995).

Horregatik, informazioaren garaian mugarik gabeko lehia dinamika indartsuek enplegua eta egitura sozialak dualizaziora eramateko joera dago (Castells, 2005). Valls-ek ere ezberdintasun kulturalak gero eta handiagoak izaterako joera dagoela ondorioztatzen du: “Iragankortasunaren kultura eta aldaketa balio bezala nagusitzen den jendartean, soilik gutxi batzuk eutsi ahalko diote bere burua suntsitzen duen sormen “elur-jauziari”” (Valls, 1999: 26).

Hortaz gain, lana eta familia bezalako erreferentzialtasun marko tradizionalak (lana errealizazio pertsonalerako eta bizirauteko sostengu bezala; eta familia, komunitatea, lagunak, ingurune lokala... erreferentzia kultural nagusi bezala) desagertuz doaz, horien ordez, erreferente sozial prekarioak agertuz. Besteak beste, Willis-ek (1994) informazioaren jendartean erreferentzia nagusiak *aisia, kontsumoa eta merkantzia* direla baieztatzen du. Egonkortasuna eta segurtasunaren ordez, oso azkar eta etengabe aldatzen (edo agertu eta desagertzen) diren erreferenteak dira nagusi, honekin batera tentsio eta dualizazioa ekarriz.

Honi Anthony Giddens eta Ulrich Beck-ek “**arriskuaren jendartea**”-ren azalpenaren bidez hainbat ezaugarri gehitzen dizkiote. Horien artean, Giddens-ek (1996) fenomeno

unibertsalizazioa, post-tradizionala den ordena (bizitzak osatzen zituzten tradizioek eragin oso handia galdu dute, eta ez dirudi unibertsalizatuko den tradizio berririk dagoenik), eta ondorioz pertsona edo talde bakoitzak bere bizi eredua aukeratzeko beharra, ideologia politiko kontserbatzaile zurrunaren desagertzearen prozesua, estatuaren eta ideologia politiko historikoen krisia... aipatzen ditu. Beck-ek “**modernizazio erreflexiboa**”-ren kontzeptua erabiltzen du (1997), modernitatearen amaieran baizik, modernitatearen jarraipen eta sakontze baten aurrean topatzen garela argudiatuz. Honek bost ezaugarri dituela aipatzen du, Valls-ek (1999) biltzen duen bezala: *globalizazio kultural, politiko eta ekonomikoa; indibidualizazioa; langabezia eta azpi-okupazio; emakumeak protagonista diren generoaren iraultza; eta azkenik krisi ekologikoa.*

Informazioaren garaiko jendarte eredian familiak eta harreman pertsonalek aldaketa nabarmenak bizi dituzte (Valls, 1999). Besteak beste iraganean “esfera pribatu” bezala definitu zenaren inguruko eztabaidak eremu publikoan agertzen ari dira, hainbat harreman ereduren legalizazioaren aldeko borrorak agertzen ari dira, familia eredu tradizionala botere sinboliko hegemonikoa galtzen ari da... Dena den familia eredu ugari oraindik mantentzen ari dira, besteak beste krisi ekonomiko garaian erabiltzeko bitarteko bezala (Castells, 1998). Emakumeek hezkuntza eta lan merkatura salto egitearen ondorioz, tradizionalki ezarriak izan zitzaizkion zereginak eta funtzioak formaz aldatzea ekartzen ari da. Hala ere, oraindik ere, soldata baxuagoak jasotzen dituzte, epe motzagoko lan prekarioagoak eskaintzen zaizkie, eta lan munduko bizitza familiarrarekin kontziliatzeko arazo gehiago izaten dituzte, gehienetan zaintza lanak ere euren gain hartzen jarraitu behar izaten dutelako (Martinez, 2006).

Eta garai honetako beste fenomeno handia ingurune kultur-anitzaren agerpena da. Izan ere, Europan etorkinen kopurua 1950eko %1,3tik (Castells 1997) 2012ko %6,8-ra pasatu da (Eurostat, 2013). Horren aurrean, hezkuntza bezalako instituzioek zuten homogeneousaziorako joera zalantzan jarri da, eta beraz, ziurtasun horren ginetik, herrialde hartzaileetako biztanleek horien kanpotik datozenekiko duten pertzepzioan aldaketak egoten ari dira. Horrela, jarrera arrazistak zein erlatibistak agertzen ari dira, baina baita ere interkulturalitatea berriro batasuna lortzeko planteamendu bezala proposatzen dutenak, zein enfoke komunikatiboago bat dutenak. Gainera, gero eta arruntagoa da internet eta beste komunikatzeko bide globalizatuen bidez inguratzen gaituzten kultura ezberdinen eragina jaso, eta guk ere horietan eragitea.

Guzti honen aurrean bai Giddens-ek (1996) zein Beck-ek (1997) modernitate berrian sakontzearen beharra nabarmentzen dute. Horretarako, bereziki eragile sozialei paper nagusia ematean bat egiten dute biek: iraganeko segurtasunen amaieraren aurrean, eragile sozialen arteko

komunikazio eta kontsentsuen eraikuntza, euren esanetan modernitate berri honen formak eta norabideak erabakitzeko bideak direlako (Valls, 1999).

Eta ideia horrekin jarraituz, bazterketa zein ezberdintasunak ez dira ekidin ezineko fenomenoak informazioaren jendaratean. Teoria kritikoak erakutsi duen bezala, subjektuak gai dira errealtatea eraldatzeko, elkartasun-sareen bidez botere-guneetatik zein kapitalaren metaketa prozesuaren ondorioz bultzatzen den bazterketa neutralizatzeko.

2.2. IKASKUNTZA DIALOGIKOA INFORMAZIOAREN JENDARTEAN

Aurreko atalean deskribatutako informazioaren jendaratea erreferentziazko testuinguru historiko-sozial bezala hartuta, berrogeita hamargarren hamarkadatik aurrera zientzia sozialetan “biraketa dialogiko” bat sortzen da. Atentzioaren erdigunea interakzioetan eta hauen garapenean jartzen da, honek dakarren ondoriozko ikuspegi komunikatiboarekin, eta hizkuntzari ematen zaion zentraltasunarekin.

Horrela, egun “ikuspegi komunikatibo” edo “paradigma komunikatibo” bezala ezagutzen den zientzia sozialetako korrontea agertzen hasten da, garai horretako harreman sozialen eta harreman instituzionalen biraketa dialogikoarekin bat egin nahi duena. Korronte honetako ikerlariak, eremu ezberdinetan gertatzen ari ziren biraketa dialogikoak ikertzeaz gain, teoriak sortzeko moduan bertan ere aldaketak egiten hasten dira, ordura arteko ulerkera objektibista, konstruktibista eta sozio-kritikoetatik aldenduz (Gomez, Latorre, Sanchez & Flecha, 2006). Hau ikaskuntzari buruzko ikerketetara eta ulerkeretara ere itzuli egiten da, eta eremu ezberdinetatik Habermas, Touraine, Beck, Freire, Wells, Bruner, Cole, Scribner... bezalako egileek gure jendartearen izaera komunikatibo eta dialogikoan indarra jartzen dute, hori gure garapen indibidual eta kolektiboarekin lotuz (Aubert, Flecha, García, Flecha & Racionero, 2010).

Egile hauen ekarpenak informazioaren jendartearen ezaugarrietara eta hezkuntza praxira ekarriz, Ikas Komunitateen proiektuaren zutabe nagusia den **ikaskuntza dialogikoaren** marko teorikoa garatzen joan da CREA. Honen azalpen sakona “*Aprendizaje dialógico en la sociedad de la información*” liburuan aurki dezakegu (Aubert et al., 2010). Honetan oinarrituta, ikaskuntza dialogikoaren definizioa ondorengo litzateke:

El aprendizaje dialógico se produce en diálogos que son igualitarios, en interacciones en las que se reconoce la inteligencia cultural en todas las personas y que están orientadas a la

transformación de los niveles previos de conocimiento y del contexto sociocultural para avanzar hacia el éxito de todos y todas. El aprendizaje dialógico se produce en interacciones que aumentan el aprendizaje instrumental, favorecen la creación de sentido personal y social, están guiadas por principios solidarios y en las que la igualdad y la diferencia son valores compatibles y mutuamente enriquecidas. (Aubert et al., 2010: 167)

Ikas Komunitateetan aurrera eramaten den jarduna, ikaskuntza dialogikoaren zazpi printzipioetan oinarritzen da: *berdinen arteko elkarrizketa, adimen kulturala, eraldaketa, dimentsio instrumentala, zentzuaren sorkuntza, elkartasuna eta ezberdintasunen berdintasuna*.

2.3. IKAS KOMUNITATEAK ETA HEZKUNTZA ARRAKASTARAKO JARDUERAK

Ikas Komunitateen jatorria ordea, ez da ikaskuntza dialogikoaren kontzeptualizazioarekin batera jaiotzen, egun oinarri konpartitua izan arren. Lehenengo Ikas Komunitatea 1978. urtean sortu zen Bartzelonako “La Verneda” izeneko auzoan. *La Verneda-Sant Martí* Helduentzako Eskola auzokide talde batek sortarazi zuen, auzokide guztiengana helduko zen hezkuntza lortzeko asmoarekin, eta horrela helduei ere hezkuntzarako sarbidea ahalbidetuz². Ondorengo urteetan zehar, CREA ikuspegi berdinarekin lanean aritu zen, lehen eta bigarren hezkuntzako zentroetan aplikatzen saiatuz, horrekin arrakastazko praktiken bidez eskola porrota ezabatu nahian. 1995ean hainbat eskola izan ziren proiektua aurrera eramaten hasi zirenak.

Dena den, Ikas Komunitateen oinarrien aurrekariak ez dira *La Verneda-Sant Martí* eskolako esperientziara mugatzen: School Development Program, Success for All eta Accelerated Schools proiektuak Ikas Komunitateen aurrekari bezala uler daitezke³.

Proiektu guzti hauek printzipio komun batzuk dituzte, ondoren ikaskuntza dialogikoaren teorizazioaren pean bilduak izan direnak. Dena den, printzipio komun hauetaz gain, hezkuntzari


2 Eskola honi buruz 1999an Harvard Education Review aldizkari entzutetsuan *A School Where people dare to dream* (Aroca, 1999) artikulu bat publikatu egin zen, horrela komunitate zientifikoaren errekonozimendua lortuz.

3 New Haven-eko (Estatu Batuak) Lehen Hezkuntzako bi ikastetxeetan Yale-ko unibertsitatearen “*School Development Program*” programa 1968tik aurrera martxan jartzen hasi ziren momentua aurrekari garrantzitsua izan zen. Bi hamarkada geroago (1987), Baltimoren ikasle guztien ikaskuntza lortzearen bidez eskola porrotari aurre egiteko asmoz “*Success for all*” programa jarri zen martxan John Hopkins University-ren laguntzarekin, denek ikaskuntza lortzea benetako demokrazia lortzeko modu bakarra dela uste baitzuten. Eta horiekin batera oso esanguratsua izan zen aukera gutxien zituzten ikasleei bideratuta 1986tik aurrera martxan jartzen hasi ziren “Accelerated Schools” izenekoak (egun 1000 baino gehiago daude).

buruz ditugun jakintza zientifikoak erabiltzea beharrezkoa da baldin eta planteatzen ditugu helburuok arrakastatsuak izatea nahi baldin badugu⁴.

Horregatik Ikas Komunitateak ezaugarritzen dituzten jarduerak Nazioarteko Komunitate Zientifikoak *INCLUD-ED – Strategies for inclusion and Social Cohesion in Europe from Education* (2006-2011) proiektuaren bidez baieztatutakoak dira. Proiektu hau Europar Batasunaren ikerketarako 6. programa markoaren barruan kokatzen da eta 2006-2011 urte artean garatu zen 14 herrialde ezberdinetan 100 ikertzaile baino gehiago inplikatur eta CREA-ren koordinaziopean⁵.

Aurretik aipatutako ikuspegi komunikatiboarekin (Gomez et al., 2006) egindako dimentsio handiko ikerketa honen bidez sei **Arrakastazko Hezkuntza Jarduera** ondorioztatu ziren, denentzako ikaskuntza modu arrakastatsuan lortzen zutenak, horien bidez zailtasunak eta ezberdintasunak gainditu, eta elkarbizitza zein kohesioa sustatuz (alboko grafikoan agertzen den bezala).



Ilustrazioa 1: Monserrat-eko Mare de Deu HLHI-ko datuak (2007-2013)

Arrakastazko Hezkuntza Jarduera izateko ezinbesteko irizpide ugari bete behar zituzten derrigorrez: 1) Ikasleri osoaren emaitzetan hobekuntza nabarmenenak eragitea; 2) Testuinguru ezberdinetara itzulgarriak diren jarduerak izatea, eta beraz, ezartzen diren tokietako bakoitzean emaitza antzekoak lortzea; 3) Aurreko bi puntuok Hezkuntza Komunitatea osatzen duten ahots guztiak kontuan hartzen dituzten ikerketa zientifikoaren bidez demostratuak izatea; eta 4) Nazioarteko Komunitate Zientifikoaren publikazioen bidez aurreko hiru puntuak abalatuak izatea.

Beraz, irizpide hauek betetzen dituzten arrakastazko hezkuntza jarduerak ondorengoak dira⁶:

-
- 4 Izan ere, oraindik egungo eskoletako antolaketa eredu hegemonikoak, bertan aurrera eramaten diren praktikek, bata bestearen atzetik datozen hezkuntza erreformek... ez dute balio hasiera batean planteatzen dituzten helburuak (ikasle guztien garapena, eskola arrakasta eta elkarbizitza besteak beste) betetzeko. Ikasketa mailaren arabera sailkatzen jarraitzen da, klase magistralak nagusitzen dira, klase edo zentrotik ikasleak kanporatzen jarraitzen da, antolaketa hierarkikoak mantentzen dira, ikasle ugari “errefortzurako” geletan baztertzen jarraitzen da... praktika guzti horiek hezkuntza eta jendarte ezberdintasunak zein bazterketa eragiten dutela demostratu denean (CREA, 2013).
- 5 Ikerketa honen bidez, ezberdintasunak gainditu eta kohesio soziala bultzatzeko balio duten hezkuntza estrategiak eta bazterketa sozialak eragiten dituztenak aztertu ziren. Mundu osoko teoriak eta ekarpen zientifikoak, estatu ezberdinetako hezkuntza erreformak eta ikas-zentroetako praktikak aztertu ziren; zailtasun handiko testuinguruetan kokatuak egon arren, hezkuntza arrakasta lortzen zuten zentroetan bereziki atentzioa jarritz (bai emaitza akademikoetan zein elkarbizitzan). Zaurgarritasun handiko kolektibo bezala *kultur gutxituengan, etorkinengan, gazteengan eta emakumeengan* jarri zuten atentzioa, zeinak nire ikerketa garatzen den eskolan gehiengo osatzen duten kolektiboak diren.
- 6 Labur azalduak daude hemen, hauetako bakoitza gehiago ezagutzeko: CREA, 2013

- **Talde interaktiboak:** ikaskuntza eta elkarbizitzaren hobekuntzari begira emaitza hoberenak eman dituen gela antolatzeke modua da. Ikaskuntza mailari, generoari, kulturari... begira heterogeneoak diren taldeak egiten dira. Talde bakoitzean jarduera zehatz bat egiten da denbora labur batean, pertsona heldu batek (bolondresa, familiako kidea, beste irakasle edo profesionala...) taldea dinamizatzen duen bitartean, berdinaren arteko ikaskuntza gerta dadin eta jardueran lan egin dezaten bermatuz. Denbora (15-20 minutu) amaitzean, beste jarduera bat egitera pasatzen dira, beste heldu batek dinamizatuta.
- **Tertulia dialogikoak:** tertulian parte hartzen duten ikasle guztiak batera egindako dialogoaren bidezko jakintza eta esanahiaren eraikuntza kolektiboa da. Kultura klasiko unibertsal eta historian zehar metatutako jakintza zientifikora hurbiltzea bilatzen da, adina, generoa, kultura edo gaitasunen inolako ezberdintasunik egin gabe. Sesio bakoitzean parte hartzen duen ikasle orok tertulia dialogikoan lantzen ari den horren (testu literario bat, artelan bat, musika pieza bat, aportazio matematiko bat...) inguruko bere interpretazioa adierazten du, aukeratutako zatia altuan irakurri eta ondoren interpretazioa azalduz. Ondoren horien inguruan eztabaidatzen da. Sesio bakoitzean pertsona parte-hartzaileetako batek moderatzaile rola hartzen du, ikasle guztien berdintasunezko parte-hartzea bermatzeko.
- **Familien formazioa:** Familien formakuntza arrakastazko jardueren bidezkoa da, eta familien interes eta beharrei erantzunez eskaintzen da. Ikas zentroak espazioak eta arrakastazko jardueretan oinarritutako formakuntza programak eskaintzen ditu, familien zein komunitatearen eskaerak eta beharrak kontuan hartuta. Oinarri hauen arabera, eurak dira zer ikasi behar duten eta nola egin nahi duten erabakitzen dutenak. Horien artean arrakasta berezia dutenak tertulia dialogiko literarioak izaten dira.
- **Komunitatearen parte-hartzea:** Familiek eta komunitateko kideek, arrakastazko jardueretan oinarritutako formakuntzan parte hartzeaz gain, ikasleen hezkuntza jardueretan parte hartzen dute ere, bai eskola ordutegian zein kanpoan. Bereziki hiru arlotan bultzatzen da parte-hartze hau: irakurketa dialogikoa, hezkuntza denboraren zabalpena (liburutegi tutorizatua, tertulia dialogikoak...) eta lan talde mixtoak (etabakiguneetan eta gestioan).
- **Gatazken prebentzio eta konponbiderako eredu dialogikoa:** eredu honek elkarrizketa ezberdintasunak gainditzeko tresna dela ulertzen du. Gatazkaren tratamenduan inplikaturako parte guztien arteko kontsentsuak protagonismo berezia hartzen du, bereziki ikasleriarenak, elkarbizitzarako arauak buruz, komunitate osoaren arteko elkarrizketa bat sortuz prozesu normatibo osoan zehar. Komunitate osoaren inplikazioa bilatzen da, iritzi guztiak entzunak eta kontuan hartuak izan daitezkeen, gatazken kausak eta jatorriak ezartzerako orduan eta hauek konpontzerako orduan, gatazka oraindik bizia dagoenean.

- **Irakasleriaren formakuntza dialogikoa:** Arrakastazko Hezkuntza Jardueren oinarri teoriko eta zientifikoetara modu zuzen eta sakonenean heltzeko gehien balio izaten ari den tresna tertulia pedagogikoak izaten ari dira, zeinak tertulia literarioen, matematikoen... formatu berdina jarraitzen duten. Haurren hezkuntzan inplikaturako pertsona oso anitzen osaturako taldeek batera nazioartean esanguratsuenak diren liburuak irakurtzen dituzte. Eskuan liburuan izanda egiten diren mintegiak dira, interpretazio okerrak edota asmakizunak ekiditen saiatzeko. Irakurritakoari buruzko berdinen arteko elkarrizketaren bidez jakintza kolektiboki eraikitzen da.

Arrakastatsuak diren Hezkuntza Jarduera guzti hauek printzipio berdinen bidez eta logika oso antzekoen bidez elkar-lotuak ulertu behar ditugu⁷.

Hala ere, espezifikoki genero indarkeriaren prebentzio eraginkor bat lortzeko, gatazkak saihestu eta kudeatzeko eredu dialogiko bat erabiltzeaz gain, genero ikuspegia barnebilduz egiten den proposamen bat beharrezkoa dugu. Honetarako CREA ikerketa zentroak (besteak beste) lantzen duen *Jendarteratze Prebentiboaren* proposamena oso erabilgarria izan daiteke. Izan ere, informazioaren jendartearen eta biraketa dialogikoaren logika berean kokatua egonik, Ikas Komunitateetan aurrera eramaten diren jarduerekin sintonian joateko aukera handiak izan ditzakeelako.

2.4. FEMINISMO DIALOGIKOA ETA JENDARTERATZE PREBENTIBOA IKAS KOMUNITATEETAN

Aurretik deskribatutako informazioaren jendartearen eta jendartearen biraketa dialogikoaren teoriaren markoan kokatuta, goi mailako ikasketarik ez duten emakumeek bazterketa bikoitza bizitzen dute: emakume bezala bizi behar duten egoeraren ondoriozkoa bata, eta bestea egiaztagiri eta ezagutza akademiko faltagatik, gero eta gehiago instrukzio maila lehenesten ari den testuinguruan (Elboj & Flecha, 2002).

Tradizionalki herri sektoreetako emakumeak hezkuntza sistematik baztertuak izan dira. Jendarteak eraikitako hesi familiar, ekonomiko eta kulturei hezkuntza sistemak gehitutakoak batu behar dizkiogu: euren eguneroko bizitzako praktikan eta jendarteratze prozesuan zehar garatu duten

⁷ Ikas zentroan Ikas Komunitate bihurtzeko prozesuari ekiten zaionean logika orokorra jardueretako bakoitzean txertatu egiten da, eta horregatik talde interaktiboetan zein tertulia dialogikoetan, patioetan zein gurasoekin formakuntzak egitean, elkarbizitzaren hobekuntzari eta horren bidez indarkeria mota ezberdinen prebentzioari ekarpena egiten zaio.

adimen eta gaitasunak ukatu dituzte, “inkonpetente” bezala tratatuz eta horrela euren ikaspena eta eraldaketa pertsonala oztopatuz. Horrela bien baturaz, jendarteko eremu ezberdinetatik baztertuak izan dira (gero eta kualifikazio maila altuagoak eskatzen dituen lan merkatutik, eremu kultural ugaritatik eta parte-hartze politikotik besteak beste).

Historian zehar eta bereziki azken mendean zehar emakumeek genero harremanetan eraldaketak eragin dituzte. Horien bidez, hainbat eskubide legalki aitortzea, genero indarkeriaren gaia ikustaraztea, berari historikoki egotzitako rol eta paperak zalantzan jartzea, laneko baldintza okerragoak eta soldata baxuagoak ikustaraztea... lortzen joan da. Gaur egun ere, mugimendu feministak oinarritzkoa izaten jarraitzen du berdintasunezkoa eta justuagoa den jendarte eredu baten bidean. Hala ere, egile ugarik beste pausu bat eman behar duela baieztatzen dute, orain arteko elitismo akademikoa gainditzeko beharra azaleratuz (Elboj & Flecha, 2002: 162).

Jürgen Habermas-ek argudiatzen duen bezala, pertsona guztiek hitzerako eta ekintzarako gaitasuna dute (1987), eta beraz, emakume guztiek, baita zapalkuntza edota marjinalizazio egoera handienetan topatzen direnek, beraien errealitatea eta ingurunea eraldatzeari begira ekarpena egiteko gaitasuna dute (Flecha, Melgar, Oliver & Pulido, 2010). Beraz, feminismoak pausu hori emateko bidean, emakume akademiko zein ez akademikoen *ahotsen inklusioaren beharra* azpimarratzen dute. Gainera, testuinguru ez-akademikoetan eta egunerokotasunean aurrera eramaten ari diren borroketatik jasotako ikaskuntzak mugimendu feministaren osotasunarentzat ezinbestekoak dira (Elboj & Flecha; 2002: 162), horrela sortuko delako eraldaketa sakonago bati ekarpena egingo dion jakintza eta praktika bat.

Ikuspegi honetatik lan egiten du feminismo dialogikoak (Piugvert, 2001), eta horren baitan *ikaskuntza dialogikoa* zutabe nagusi bezala ulertzen dute bere sustatzaileek. Izan ere, arrazoen baliagarritasunean oinarrituta (Habermas, 1987), ibilbide, kultura eta pentsamendu ezberdinetatik datozen emakume ezberdinen arteko elkarrizketatik askoz zuzenagoa eta osatuagoa den jakintza bat sortzen da. Beraz, hezkuntzak duen paper eraldatzailea (Freire, 1970) eta informazioaren jendartean hartzen ari den papera (Valls, 1999) kontuan hartuta, ikaskuntza dialogikoa bazterketa bizi duten emakumeek hori gainditzeko oinarritzko gakoetako bat da.

Genero indarkeria eta jendarteratze prebentiboa Ikas Komunitateetan

Genero indarkeriak jendarte osoari eragiten dion fenomeno lazgarria izaten jarraitzen du. Honen inguruko ikerketen emaitzak kontuan hartuta, prebentzioak pisu oso handia dauka honekin amaitzeari begira. Heziguneak, jendarteratzearengan eragina duten interakzio kopuru oso handia

garatzen den eremu bezala (ikasleak, irakasleak, familiak...), indarkeriarik gabeko harreman ereduaren eraikuntza eta eraldaketarako ezinbestekoak diren guneak dira.

Hori dela eta, *Ikas Komunitateetan* genero indarkeriaren prebentzioari begira aurrera eramaten den esku-hartzea (jendarteratze prebentiboa), feminismo dialogikoaren ikuspegiarekin sintonian eta *gatazken prebentziorako eredu dialogikoaren markoan* kokatzen da. Eredu hau gatazkatsuak izan daitezkeen egoerak prebenitzean zentratzen da, jada agertu direnean konpondu behar ez izateko (Aubert, Duqye, Fisas & Valls, 2004).

Jendarteratze prebentiboak feminismo dialogikoak genero indarkeriaren aurrean proposatzen dituen ildoak bere egiten ditu (Flecha, et al., 2005). Batetik, genero indarkeria estali eta biktima errudun bezala tratatzeko balio duten mekanismoen aurka egiten du lan, isiltasunaren legearekin eta konplizitatearekin amaitzen saiatuz, eta horren ordean emakumeen arteko elkartasuna bultzatuz. Bestetik, rolen banaketa tradizionala zalantzetan jartzen ari den momentu honetan, berdintasunean oinarritutako harremanak bultzatu nahi ditu. Horretarako, egoera ezberdinetako subjektuei ahotsa ematearen aldeko apustua egiten du, edozein delarik euren adina, ikasketa maila, erlijioa edota kultura. Horren bidez, modernizazioaren erradikalizazio baten aldeko apustua egiten du, emakumeek elkarriketa eta kontsentsuen bidez zapalkuntzaren historiaren norabidea aldatzea defendatuz. Konkretuki, aurreko ideiak biltzen dituen ondorengo definizioa erabili dezakegu:

Entendemos por socialización preventiva el proceso social a través del cual desarrollamos la conciencia de unas normas y unos valores que previenen los comportamientos y las actitudes que conducen a la violencia contra las mujeres y favorecen los comportamientos igualitarios y respetuosos. (Oliver & Valls, 2004)

Besteak beste Patricia Melgar-en doktoretza tesian (2009) ikertua izan den bezala, genero indarkeriaren biktimak izan direnen sozializazio prozesuak eragina izan du hori bizitzetarako joeran, bereziki barneratu beharreko genero rolei eta harreman afektibo-sexualean izan behar lukeen paperari deritzon. Orokorrean, baieztatu daiteke, jendarteratze prozesuan maitasuna eta indarkeria batu egin ohi direla, eta horrek ondorio lazarriak ekartzen dituela, bereziki emakumeentzat. Horregatik, beste harreman afektibo-sexual ezberdin batzuetan sozializazioa ezinbestekoa bihurtzen da, zeinetan maitasuna eta errespetua ez diren pasioa eta motibazioarengandik disoziatu eta banatuko.

Horretarako, jendarteratze prebentiboaren bidez, eredu afektibo-sexual hegemonikoa eraldatzeko lan egitea proposatzen da. Norabide horretan jardura ezberdinak garatzen ari dira,

besteak beste Jesús Gomez-ek Ikas Komunitate bilakatu diren heziguneetan aurrera eramaten ari diren jardueretan sakondu egiten du, hiru konpetentzia-lerro proposatuz (2004): erakarpenerako konpetentziak⁸, aukeraketarako konpetentziak⁹ eta berdintasunerako konpetentziak¹⁰.

Ordea, lan hau garatzeko ezinbestekoa da hezkuntza eragile guztiak (familiak, administrazioa, irakasleak, ikasleak, bolondresak...) inplikatuak eta helburu berdinekin lanean aritzea. Horretarako horien arteko erakarpenari, aukeraketari zein berdintasunari buruzko elkarrizketa funtsezko zerbait da. Bereziki emakumeen papera oso garrantzitsua da egoera hau gainditzeko orduan, are gehiago indarkeria bizi izan duten (edo bizitzen duten) emakumeena. Haien ikuspegi eta ekarpenei esker genero indarkeriaren forma ezberdinak askoz modu eraginkorragoan prebenitu ahalko dira.

Azkenik, lanaren izenburua eta ikerketa lan honen helburua den gaiarekin lotuz, genero indarkeria prebenitzeari begira feminismo dialogikoarekin sintonian doan Jendarteratze Prebentiboaren eredia eta Ikas Komunitateetan aurrera eramaten diren Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak oinarri teoriko oso antzekoetan eta filosofia ia berdinen baitan kokatzen direla baieztatu ahal izan dugu. Gainera, biek erabat elkar-lotua doazen bi helburu (arrakasta akademikoa eta elkarbizitza hobea) lortzeko arrakastatsuak izaten ari diren jarduerak proposatzen dituzte.

Dena den zehazki talde interaktiboetan, tertulietan, familiekin, formakuntzetan... zer da zehazki indarkeria prebenitzeko eta berdintasun zein errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzeke gehien laguntzen duena? Zer da helburu horiek lortze bidean momentu honetan oztopo bezala funtzionatzen duelako hobetu edota gaintitu behar dena? Zeintzuk dira duela hiru urte Ikas Komunitate bihurtu zen hezigune batean Jendarteratze Prebentiboa eta gainontzeko Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak hobeto elkar-lotu eta eraginkortzeko lagundu dezaketen erronkak?

Galdera hauei erantzunez, ondorengo atalak garatuko ditugu.

8 Maitasuna garatzea jatorri soziala (eta ez biologikoa) duen sentimendu bezala. Konkretuki sozialki “erakargarri” bezala ulertuak diren pertsonen balioekiko analisi kritikoak egitea, ondoren erakarpenen eta desioen aldaketa pertsonalak eragiteko. Hau da, balio negatiboak izan arren erakartzen duten pertsonetikiko gaitzespena eta balio positiboak dituzten pertsonetikiko erakarpena bultzatuz.

9 Aukera ezberdinen artean ezberdintzen jakitea eta bizitzan zehar aukeratzen goazena errekonozitu ahal izatea. Zentzu horretan, baliagarritasun xedea duten erabakitzeke moduetarantz ibiltzea (Habermas, 1987) da kontua, argudio hobeen arabera aukeratzea, eta ez botere xedea duten aukeratzeko moduak erabiltzea, hau da, ikuspuntu propioen inposaketaren bidezkoa.

10 Egun jendartean dauden botere harremanak ezagutzea, eta hauek barnertzeko dauden moduak. Horrekin batera, berdintasunean, elkartasunean eta laguntasunean oinarritutakoak diren eta aldi berean maitasunean eta pasioan oinarritzen diren harreman afektibo-sexualak izateko gure eraldaketarako aukerak eta gaitasunak errekonozitzea.

3. MARKO METODOLOGIKOA

Ikerketa hau aurrera eramateko, **metodologia komunikatibo kritikoan** oinarritu naiz (Gomez et al., 2006), eta proiektuaren oinarri teorikoa hobeto ulertu, eta praktikan duen garapenaren ulermenean sakondu ahal izateko asmoz hezigune zehatz baten kasu azterketa dut (Elejabarri HLHI).

Metodologia komunikatibo kritikoa erabiltzea aukeratu dut Ikas Komunitateen proiektuaren eta bertan aurrera eramaten diren jardueren oinarri teorikoarekin bat egiten duen ikerketa eredua delako. Eta horregatik, eskolan bertan, aktore ezberdinen arteko elkarrizketa inter-subjektiboetatik abiatuta, jakintza aberatsa eraiki eta eraldaketa berriak sortzeko baliagarria izan ahal den ikerketa metodoa iruditu zaidalako.

Ikerketarako metodologia honek errealitatearen analisia prisma bikoitzetik egiten du: sistemen eta egituren inguruan batetik; eta bizitzaren mundua eta giza agentziaren inguruan bestetik (Habermas, 1987; Giddens, 1984). Honetan oinarrituta, zazpi printzipiok ezaugarritzen dute metodologia komunikatibo kritikoa: 1) Hizkuntza eta ekintzaren unibertsalitatea; 2) Pertsonak subjektu eraldatzaile bezala; 3) Arrazionaltasun komunikatiboa; 4) Zentzu komuna; 5) Hierarkia interpretatibo eza; 6) Maila epistemologiko berdina; eta 7) Ezagutza dialogikoa.¹¹

4.1. HELBURU OROKOR ETA ESPEZIFIKOAK

Ikerketaren **helburu orokorra** genero indarkeriaren prebentzioari begira, Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak duten eragina aztertzea da. Hau da, jarduera horien bidez, indarkeriarik gabeko harremanen sustapena eta genero indarkeria eragiten duten balio eta jarrerren gaitzespena nola bultzatzen den analizatzea.

Bestetik, ondorengoak dira ikerketa gidatuko duten **helburu espezifikoak**:

- a) Arrakastazko Hezkuntza Jardueren bidez, elkarbizitza sustatu eta indarkeria mota oro (bereziki genero indarkeria) prebenitzeko erabiltzen diren estrategiak aztertzea.
- b) Estrategia horien aurrean aktore bakoitzak horiekiko (eta horien eraginkortasunarekiko) dituen pertzepzioak bildu eta elkarren artean kontrastatzea

¹¹ Sakontzeko: (Gomez et al., 2006)

- c) Aipatutako indarkeriaren prebentzioa lortzeko *oztopo* edota *laguntzazkoak* izaten ari diren, eta jarduera hauetan presente dauden estrategia eta faktoreak hautematea.
- d) Aurrera begira, genero indarkeriaren prebentzioan eraginkortasun handiagoa lortzeko, Arrakastazko Hezkuntza Jardueretan bultzatzeko erronka posibleak mahai gainean jartzea.

4.2. EGOKITZAPENA ETA ERABILITAKO TEKNIKAK

Hala ere, ikerketa hau garatzeko izandako denbora eskasak eta eskolan momentu horretan zegoen testuinguruak (lan karga, tempus ezberdinak eta kanpo ebaluazioak) metodologia honek proposatzen dituen teknikak bere osotasunean garatzeko ezintasuna ekarri du, bereziki ikerketa garatzeko proposatzen diren atal organizatiboei dagokienean. Hori dela eta, eredu hau erreferentzia bezala hartuta, testuinguru horri hoberen egokitzen zen ikerketarako antolakuntza eta teknikak egokitu behar izan ditut.

Aldaketa nabarmenena ikerketaren jarraipena egiten duen subjektuaren antolakuntzan egon da, izan ere, berez proposatzen diren hiru organoak aurretik aipatutako arrazoiak direla eta sortu ezinik (batzorde aholkularia, ikerketa talde kultur-anitza, lan talde operatiboak eta plenarioa), ikerketa aurrera eramatearen pisua bereziki niregan jausi da, nahiz eta ikergaiaren aukeraketa, tekniken aukeraketa, epeak eta atera diren emaitzak elkarrizketa iraunkorraren bidez adosten joan diren eskolako eragile ezberdinekin. Bereziki, aholkularitza papera eskolako zuzendaritza taldeak eta EAE-ko Ikas Komunitateetako arduradunak Maria Luisa Jausi bete dute, nire tutorea eta Patricia Melgar Bartzekolako Unibertsitateko ikerlariarekin batera. Bestetik, erabaki handien onarpena (gaia, ikuspegia, datak, moduak, laginak...) eskolako batzorde iraunkorren proposatuak eta onartuak izan dira. Azkenik, jarraipen iraunkorrena (nahiz eta hilabeteen behin izan) aurten eskolan sortu berri den Hezkidetza Batzordearen bidez egin da, zeinetan eskolako zuzendaritzako hezkidetza proiektuaren arduradunaz eta irakasleez gain, komunitateko hainbat kidek parte-hartu duten (ama bat, jantokiko begirale bat, Gazteleku-ko arduradun bat, unibertsitateko ikasle bat, eta puntualki berritzeguneko arduradun bat).

Ikerketa aurrera eramateko, metodologia komunikatibo kritikoa erabiltzen duen ikerketa baten prozesurako proposatzen diren pausuak jarraitu ditut: 1) *Gaia planteatzea*; 2) *Dokumentazioaren berrikuspena*; 3) *Helburuen edo hipotesien formulazioa*; 4) *Ikerketaren marko teorikoa*; 5) *Populazioa eta lagina*; 6) *Ikerketa tekniken aukeraketa*.

Erabilitako teknikei dagokienean, orientazio komunikatiboa duten informazio bilketarako hiru tekniketarik bi erabili ditut: *kontakizun komunikatiboa eta behaketa komunikatiboa*. Talde eztabaida komunikatibo bat egiteko asmoa izan nuen hasiera batean, baina azkenean denbora gabezia dela eta, ezin izan nuen aurrera eraman.

- **Kontakizun komunikatiboa**¹²: ikertzen duen eta ikertua den pertsonen arteko elkarrizketan oinarritzen da, azken honen egunerokotasuneko bizitzari buruzko hausnarketa eta interpretazioa egiteko asmoarekin. Ikertua izango denarentzat eroso eta familiarra den toki batean egiten den elkarrizketa mota honen bidez, ikertuaren eguneroko bizitzako momentuz hitz egiten da, bakoitzak dituen ikuspuntu eta abiapuntuetatik, narratiba hausnartu bat egiten saiatuz.
- **Behaketa komunikatiboa**¹³: ikertzen ari diren egoeren behaketa zuzena egiten da, bertan parte-hartzaile bezala eta bat gehiago bezala egonez. Baina horretaz gain, testuinguru horietan garatzen diren ekintzei, jokaerei, gertakizunei, motibazioei, gaitasunei... buruz esanahiak eztabaidatu eta konpartitu egiten dira, bertan aktore izan diren pertsonekin batera, berdintasun plano batetik.

Azkenik, aipatu behar dugu teknika hauek erabiliz lortutako informazioaren zorrotasun zientifikoa bermatzeko, prozesuaren kalitatea ebaluatzeko balio duten irizpide batzuk erabili ditugu. Hain zuzen ere, Lincoln eta Guba-k (1985) lau irizpide zehazten dituzte (egia, aplikagarritasuna, konsistentzia eta neutraltasuna. Hauek, metodologia komunikatibora itzulita, hirutan itzuli egiten dira: *elkarrizketa intersubjektiboa, baliagarritasun xedea eta konpromisoa*, zeintzuk sakonago azalduak diren aurretik aipatutako “*Metodología Comunicativa Crítica*” liburuan (Gomez et al., 2006).

12 Nire ikerketarako, kontakizun komunikatiboa hiru irakaslerekin, zuzendaritzako kide batekin, komunitateko kide batekin eta bi amarekin egin dut. Hauetan, eskolako eguneroko bizitza indarkeria, giroa eta honen prebentzioari buruzko ikuspegitik enfokatu dugu.

13 Nire ikerketarako, eskolako egunerokotasunean bat gehiago bezala parte-hartzen nuela baliatu dut, genero indarkeriarekin eta bere prebentzioarekin lotutako hainbat testuinguru eta egoera identifikatzeko. Horietatik behaketa komunikatiboa egiteko baliatu ditudanak ondorengoak dira: 1) 4. mailako ikasle batzuen arteko gatazka bat eta honen konponketa; 2) Irakasleen bi formakuntza saio dialogiko (Yale-ko gidari -Gúia para entender a tu hijo. Universidad de Yale- buruzko bi tertulia pedagogiko); 3) Gurasoekin egindako tertulia dialogiko bat (gida berdinari buruz); 4) Lehenengo mailan ikusitako irakaslearen esku-hartze bat, aurrerago sor litekeen gatazka baten hasiera prebenitzeko balio ahal izan zuena; eta 5) beste egoera baten inguruan ikasle batzuekin talde eztabaida egiten nengoen momentuan, sortutako gatazka baten aurrean ikasle batzuk izan zuten jokaera. Behatutako bost egoera horietaz hitz egiteko, lau irakasleri, bi amari eta zuzendaritzako kide batekin egin nituen saioak batetik (banaka). Eta bestetik, bost ikaslerekin horien inguruan ere hitz egin nuen (hiru eta bi).

4. LANAREN GARAPENA ETA EMAITZAK

Nire ikerketa garatzeko Elejabarri haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea aukeratu dut, Ikas Komunitateen proiektuaren barruan dagoena, hau duela hiru urtetatik martxan jarritz. Hezigune hau aukeratzeko arrazoi nagusiak bi izan dira: batetik, Bizkaia mailan gailentzen ari delako, inguratzen duen testuinguru sozialaren zailtasun berezia izanda ere lortzen ari den emaitzak direla eta; eta bestetik, hiru urtetan zehar eskolarekin elkarlanean ibili naizelako (bolondres gisara eta praktiketan), eta beraz, nire ikerketa komunikatiboagoa izateko baldintza onak daudelako (elkar ezagutzea...) eta informazioa ikuspegi integralagoarekin ulertzeko toki egokiena dela ikusi dudalako.

4.1. AZTERTUTAKO KASUA

Ikerketan zehar ateratako emaitzak ondo testuinguratzea beharrezkoa da hauek zuzen ulertu ahal izateko, izan ere, beste eskola gehienek nahiko ezberdina den testuinguru batek inguratzen du eskola, eta horrek bertan sortzen diren baldintzak ere gainontzeko zentroekiko ezberdinak izan daitezke.

Elejabarri Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea

Elejabarri Eskola Errekaldeko auzo Bilbotarrean kokatua dagoen eskola publikoa da, zeinek Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetarako hezkuntza eskaintzen duen (D eredu 5. mailatik behera eta A eredu hortik gora). Klaustroa 16 irakaslez dago osatua, eta hortaz gain 2 atezain eta 4 jantokiko begirale daude kontratatuak. Horiez gain bolondresak, praktiketako ikasleak eta eurekin batera lan egiten duten elkarte eta instituzioetako kideak ibiltzen dira eskolan zehar, momentu zehatzetan edo era iraunkorragoan. Oraintxe bertan 76 ikasle inguru daude matrikulatuak, zifra ikasturtean zehar handitu ohi den arren, inskripzio berrien ondorioz. Horietatik gehienak, %69 iaz, ijito kulturakoak dira, eta gainontzeko %31 familia atzerritarrak dira.

Eskola Ikas Komunitateen proiektuaren barruan dago sartua, eta zuzendaritza talde berria du duela hiru urtetatik. Ordutik eskolak norabide berria martxan jarri du, Hezkuntza Arrakastarako Jardueretan oinarrituta. Aurretik zituen harreman ugari mantendu (esate baterako Kale dor Kayiko elkarteak astean bi egunez eta 4 orduz gizarte hezitzaile bat eta bitartekari ijito bat bidaltzen ditu, eskola arrakasta eta kultur-arte elkarbizitza bermatzen laguntzeko) eta jardun bide berriak zabaldu ditu: auzoko eragile gehiagorekin hezkuntzari begirako proiektuak martxan jarri, familiei

paper protagonista eman, ikasleekin harreman dialogikoak garatu, eskola antolakuntza demokratizazio bidean jarri... Irakasleria ere azken uste hauetan egonkortzen joan da, izan ere, aurretik baja asko hartu ohi zituzten eskolan bizitzen ziren gatazkak direla eta. Horrekin batera, bolondres kopuru handi bat (familia kideak, auzokideak, unibertsitateko ikasleak...) eskola-bizitzan parte-hartzen hasi dira, bai klasean bertan, familien formakuntzan, tertulia dialogikoetan, talde interaktiboetan, jantokietan...

Oraindik ez dago eskolakoa den Gizarte Hezitzaileerik, zeregin zehatzetarako auzoko edo elkarte anitzetako gizarte hezitzaileekin elkarlana egiten duten arren. Hori dela eta, berez gizarte hezitzaile batek hartuko lituzkeen funtzio ugari irakasleek edota bereziki zuzendaritzako kideek euren gain hartzen dituzte. Azkenik, gai konkretu batzuetan esku-hartzen duten profesional ugari daude eskolan: higienista bat, logopeda bat, liburutegiko arduraduna hizkuntza sostengurako irakasle bat.

Auzoa: Errekalde auzo Bilbotarra

Auzoan jatorri ijitoko familia asko daude, eta azken urteetan auzokide berriak heldu dira, bereziki Afrikako herrialde ezberdinetakoak, Hego Amerikakoak eta Magrebtarrak. Errekalde inizatiba sozial eta auzokideen antolakuntza kultura aldetik sare sendoak izandako eta oraindik mantentzen dituen auzoa da. Esate baterako, Gaztelekua erreferentzia handia da auzoan, eta haur zein gazteekin burutzen du interbentzioa. Egun Gaztelekuak harremana hobetu eta egonkortu du eskolarekin (elkartearen egoitza eskolan bertan dago).

Auzoko aniztasuna kontuan hartuta, ezinbestekoa da eskolan testuinguru konplexu horretan txertatutako agente bat gehiago bezala lan egitea, besteekin sare-harremanak garatuz. Era berean, eskolan egiten diren interbentzio hezitzaile ezberdinetan oso garrantzitsua da kultur aniztasun eta genero irizpidetatik lan egitea.

Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak eta Jendarteratze Prebentiboa eskolan

Momentu honetan, Elejabarri HLHI-n aurrera eramaten diren Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak ondorengoak dira: talde interaktiboak eta tertulia dialogikoak ikasleekin duela bi urte baino gehiagotik, irakasleen formakuntza dialogikoa ere prozesuaren hasieratik (nahiz eta irakasle asko aldatzen joan diren), familien formakuntza azken urte honetan hasi da, komunitatearen parte-hartzea ere duela urtebete baino gehiagotik (nahiz eta familiak azken urtean zehar txertatzen joan diren, kopuru baxuan izan arren), eta gatazken prebentziorako eredu dialogikoa prozesuaren

hasieratik (logika orokor bezala, eta hezkidetzaz planteamendu zehatzak duela urtebete baino gehiagotik).

Jarduera guzti hauek oso erritmo azkarrean txertatu direla, eta guztiak hasieratik martxan jarri ez zirela azpimarratzea beharrezkoa da. Horren bidez ulertu dezakegu, Arrakastazko Hezkuntza Jarduera bakoitzaren eragina hau martxan egon den denborak, aktore bakoitzak egun eskolan duen paperak eta irakasleen aldaketek baldintzatua izan dela.

Dena den, ikerketa aurrera eramaterako garaian, eskolaren errealitatea beraren erakusgarri izan dadin, euren artean ezberdinak diren aktoreekin batera bildu dugu informazioa. Egoera ezberdinetan dauden pertsonak bilatu ditugu hezigunean gertatzen denaren ikuspegi osatuago bat lortzen saiatzeko.

4.2. LORTUTAKO EMAITZAK

Atal honetan ikerketarako ezarritako helburuekin lotutako emaitzak bilduko ditugu, behaketa komunikatiboa eta kontakizun komunikatiboaren tekniken bidez jasoak izan direnak. Hasteko azpimarratu behar dugu ikerketan parte-hartu duten kide guztiek aldaketa oso nabarmena nabaritu dutela azken hiru urte hauetan zehar (Arrakastazko Hezkuntza Jarduera martxan jarri zirenetik).

Aldaketa hori nabarmen hobertzeko izan da bai emaitza akademikoetan baina bereziki elkarbizitzaren hobekuntzan. Gatazken kopurua eta intentsitatea asko jaitsi da: duela hiru urte egun bakoitzean intentsitate ezberdineko hainbat gatazka egoten ziren, eta orain asteren batean gatazkaren bat egoten da, baina askoz intentsitate baxuagokoa. Bestetik, giroan ere sumatu dute aldaketa: begiradan bertan igartzen zen desafiotik (ikasleen artean, irakasleekiko, bolondresetik...), mehatxuetatik, toki batean hasi, eskolatik kanpo jarraitu eta handitu, eta eskolara dimentsio izugarriarekin bueltatzen ziren indarkeriazko egoeretatik, askoz giro lasaiagora pasatu dela azpimarratzen zuen irakasle batek. Gainera, beste batek ere, nabaritzen zuen ez zela bakarrik eskolako aldaketa izan, baizik eta eskolan giroa aldatzearekin batera, kaleko giroa ere lasaitu zela.

Lehen... Eske... Ezin zen barbarik egin. Ez euren artien, ez gure artien, ez eurekaz... Ezan barbarik egiten, inoiz bez. Edozein kontestutan, ezta pasilotik pasatzen bez. Eske zan pasada bat. Gitxienez oin trankil zoiez pasilotik, berba egiten dabe euren artean... (...) Nik pentsatzen dot ganera, hemengo giro on horrek edo, kaleko giroa ere moteldu dauela. Ze lehen egiten zena zan:

eskolan txarto, pasiloan txarto, kalean... kalean... euren artean “a leche limpia”. Eta klaro, familien arteko arazoak, euren arteko arazoak... Eta berriro ekarten zan hori eskolara. Eta ez ginen ateratzen rollo horretatik. Gitxienez, oin ba gertatzen diz kalean gauza pare bat edo, baina ez horrenbeste. (KK1-Irakaslea)

Aldaketa honen arrazoien inguruan galdetuz, guraso batek pazientzia eta irakasleen prestutasuna azpimarratzen zuen. Baina ikertutako gainontzeko pertsonak Arrakastazko Hezkuntza Jardueren ezarpena azpimarratzen zuten, elkarrizketa transbertsalki ezarri ahal izateko baldintzak eta espazioak sortzeko gai izan zirelako. Zentzu horretan, azken urteetan zehar elkarrizketarako gero eta espazio gehiago irekitzen joan ahal izan direla nabarmentzen zuen zuzendariak (klaseetan, arazoak agertzean, proposamenen aurrean, ikasketekiko...). Ordea, elkarrizketa giro hori zabaltzen joan ahal izateko, Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak zutabe paper garrantzitsua jokatu dutela aipatzen zuen.

Bestetik ere, elkarrizketa giro horrek lehen ezkutuan zeuden eta gatazken jatorri izan ahal ziren informazioetako asko ikustarazteko balio ahal izan du. Bai aurrerago gatazkek sortu ahal zituzten egoeren hastapenak, zein jada sortutako gatazken garapenari buruzkoak, askotan irakasleen eta komunitateko beste kide askoren ezagutzatik kanpo geratzen zena. Horrek, gatazka horien espresio ikusgarriak (borrokak, irainak, mespretxuak...) konpontzeko ezintasuna sortzen zuen, eta informazio guzti hori ikusi eta ezagutu ahal izateak eragin handia izan zuen etorkizuneko gatazkek prebenitzaerako estrategiak martxan jartzeari begira.

Ikerketan parte hartu duten pertsona guztiek elkarbizitzaren hobekuntza oso nabaria azpimarratu dute, eta hori ez da bakarrik gatazka kopuruan eta dimentsioan igarri. Gatazkaren bat sortzen bada, hau konpontzeko erraztasunean asko nabaritzen da ez garela “egoeraren lasaitze” huts batez ari.

Si, antes tenían mucho pique... hace tiempo no se habrían arreglado así. Si se liaban en un momento, eso luego seguían con el mismo rollo, a la salida también. Pero ahora no. Vienen, se piden perdón entre ellos... y luego están bien, de maravilla: a los cinco minutos ya están jugando. (BK1-Ama)

Umeek salatu dute. Aurreko egunean ume batek esan zidan “Cristina quiero hablar contigo” ... (*sinestezintasun keinua*) irten nintzen berarekin gelatik, kontatu zidan arazo hori, sartu nintzen gelan, eta esan nuen “a ver, aquí pasa algo”. Egon ginen ordubete... atera zen... denetik. Denetik. (...) atzo hemen egon nintzen ni ez dakit zein ordurarte, eta pasiloetatik bazeuden Rekalde Partekartuz-en eta ikusi ninduten eta esan zidaten “Cristina, mañana tenemos que hablar, e. Que

ha pasado una cosa.” Gaur goizean, nik eneukan klaserik, eta hitz egiten konpondu gara. Baina lehen, hori gertatzen bazen, se lo iban a decir al primo, el primo les iba... y se montaba aquí la de... Osea orain ya ez. (KK3-Irakaslea)

Argi ikusten da jarrera aldaketa orokor oso nabarmen bat gertatzen ari dela, eta horrekin batera indarkeria normalizatu, naturalizatu eta erakargarri bihurtzen duten ereduaren desagertzerako bidean ibiltzen ari delako gertatu da. Ikerketaren atal honetan zehar, gainontzeko Arrakastazko Hezkuntza Jarrietako bakoitzak indarkeriaren eta genero indarkeriaren prebentzioarengan duten eraginari buruz lortutako emaitza nagusiak azalduko ditugu.

Talde interaktiboaren eragina

Talde interaktiboaren eraginaz galdetuta, gehien atera den ezaugarria akademikoa eta elkartasuna zein talde lanaren sustapena batera joatea izan da. Horrela nabarmentzen zuten bai zuzendaritzako kideak, irakasle ugari, ama batek eta ikasleek eurek ere. Indarkeriaren eta gatazken prebentzioari begira, talde interaktiboaren ezaugarri hauek izan dira eraldaketa gehien eragin dituztenak:

- Taldearen izaera heterogeneoa (kultura, adina, ikasketen maila...) euren arteko interakzioak aberasten ditu, elkar-laguntza jardueran horretan sustatu nahi den funtzionamendu eredu sinple izateko behar eta tresna baliagarri izatera pasatzen delako. Hau horrela da, ariketa zehatzak egiteko elkarren laguntza behar izaten dutelako, eta adimen kolektibo horren aktibazioarako bakoitzak bere gaitasunak aktibatu behar dituelako. Heterogeneitate horrek gainera, elkarren beharra bizitzea eta ematea bezala besteengandik ere jasotzearen beharra sortzeko balio du.
- Dinamizatuak bakoitzaren gaitasunak potentziatzeak frustrazioak gainditu eta bakoitzaren auto-ezagutza eta elkar-balorazioa handitzea eragiten du. Horrek, berriz, ikasketekiko frustrazioak, zailtasunak eta eskolatik kanpo gertatu ahal diren egoera gatazkatsuen aurrean jarrera positiboagoak garatzea eta horrekin “mundu berri bat deskubritzea” eragiten du, zeinek zentzua sortzen laguntzen duen. Horrek eskolarekiko, ikaskideekiko, irakasleekiko... harreman osasuntsuak garatzen laguntzen du.
- Elkarrekin lan egiten eta elkar laguntzen ikasten da. Eskolara heldu berri diren edo txikiak diren ikasleek normalean ez dute jakiten laguntzen, besteei azaltzen... edo ez daude ohituta. Haur hezkuntzako irakasleak azpimarratzen zuen bezala, talde interaktiboek esker gaitasun horiek eskuratzen dituzte, eta horri esker gaitasun horiek beste testuinguru batzuetarako ere (patioa, klasean, etxerako lanak egitean etxean...) erabili ditzakete. Trebezia hauek normalizatu

eta barneratzeak, ikasleen arteko harremana asko hobetzen laguntzen du. Elkarren artean hobeto edo okerrago konpondu arren, helburu komunak betetzeko (fitxa denek egitea) elkar laguntzen ikasten dute. Ikasle batek kontaktzen zidan laguntza jaso eta eman, biak neurri berdinean egiten zituela, eta “ikaskide guztiakin, denak lagunak garelako” (KK1-Ikaslea).

Elkarrizketatutako umeetatik beste bik eskolatik gehien gustatzen zaiena bezala aipatu dituzte talde interaktiboetan betetzen dituzten fitxak. Asko ikasten dutela azpimarratzen dute, gehiago oraindik bolondresekin. Helduen presentziak (gurasoak, unibertsitateak datozen ikasleak...) atentzioa indibidualizatuagoa izatea ekartzen du, horrela talde txikiak egin ahal izatea, eta heterogeneitatean interakzioak potentziatzeko baliabide gehiago izatea. Heldu nahiko daudenean, talde interaktiboetan garatzen diren harremanak zaintzeko aukerak nabarmen handitzen dira, eta horri esker ikasleak gusturago sentitzen dira, harreman osasuntsuagoak izaten dituzte eta gehiago ikasten dute.

Talde interaktiboak bezalako jarduerak ordu zehatz batzuetan egiten diren arren, euren filosofian txertatuak dauden harreman ereduak, ohiturak... eskolako beste testuinguruetara hedatzen ari dira (klasea, liburutegia, patioa...). Baina jasotako informazioaren arabera, horiek bereziki akademikoa eta elkarbizitza uztartzen diren eremuetara hedatu dira, eta ez hainbeste jolastorduak... bezalako eremuetara.

Tertulia dialogikoen eragina

Tertulia dialogikoak askotan aipatu dituzte ikerketan zehar, elkarbizitzaren hobekuntzari begira izan duten eraginagatik. Talde interaktiboek eragin “teknikoago” bat izan ahal izan dutela (talde eta elkar-laguntza gaitasunak lortzeko) aipatzen zuten bitartean, tertulia dialogikoetatik gehien azpimarratu dutena hauetan gaia batzuk esplizituki lantzeko aukera da. Izan ere, irakurmena, adierazpena, entzutea, kontrastea... ekin lotuta dauden gaitasunak berenganatzeaz gain, testuetan agertzen diren atalak erabilia eguneroko bizitzetako aspektuekin... lotzeko aukera ematen dute, eta horrek, normalean berdinetik berdinerara hitz egin ohi ez diren gaiak mahai gainean jartzen laguntzeko balio duten interakzioak sortzen direla:

- Entzute aktiboa egiten ikasten da. Tertulia dialogikoetan txandak errespetatzen, besteen ekarpenak entzuten, horiei norberarenak gehitzen, ikuspuntu propioak besteek esandakoekin kontrastatzen... ikasten da. Eta horiek komunikaziorako gaitasun ezinbestekoak dira, baita komunikazioa elkarbizitzarako eta gatazkak sortu aurretik konpontzeko. Egiten diren ekarpenak kontuan hartuak direnean, ekarpen hauek egiteko maiztasuna eta horien inguruan iritzia emateko

aukerak handitu egiten dira.

- Elkarren arteko ezagutza sakonagoa lortzen da. Egiten diren interbentzioen bidez, bakoitzak bere egunerokotasuneko ideiak, adibideak, ekarpenak, pentsamenduak... konpartitzen ditu taldearekin, nahiz eta denek testu berdina irakurri. Ikasle batek adibidez, azpimarratzen zidan tertulietatik gehien gustatzen zaiona irakurtzea baino, ondoren komentatzea dela, galderak egiten direlako.
- Gainera trukaketa eta kontraste horren bidez, kultura, erlijio... ezberdinetako ikaskideei zein irakasleei buruz batzuk eta besteek dituzten aurreiritziak alboratzen joaten dira.¹⁴
- Egunerokotasuneko kezkak eta elkarbizitzarekin lotura duten gaiak ateratzeko espazio egokiak bihurtzen dira. Txikiekin ere neurri batean tertulietan horrelakoak ateratzen badira ere, bereziki bigarren eta hirugarren zikloko tertulietan parte-hartzen zuten pertsonak aipatzen zidaten hau. Liburuaren pasarte edo gertaera zehatzek eguneroko bizitzetan ikasleek, parte-hartzen duten bolondresen, irakasleen... kezkak edo kontakizunak partekatzeke balio dute, eta horien inguruan hausnartzeko (beste erara hitz egin ohi ez dena). Gainera, tertulia dialogikoko giroa eroso denean, eta komentario zein ekarpenak kontuan hartzen direnean, hauek konpartitzeko espazioa sortzeaz gain, besteek horien inguruan duten iritzia berbalizatzeke eta hausnarketaren bidez puntu berrietara heltzeke espazio bat ere eratzen da: “Uno de quinto-sexto tenía la ilusión de darle una patada a una paloma, y lo hizo. Se van a levantar manos, ¿no? “Tu no puedes darle una patada...”” (KK2-Ama).

Eta kasu ugarian eztabaida horien bidez, eskolako, klaseko, kaleko... gertatzen diren gauzetaz modu eroso batean eztabaidatzeko aukerak sortzen dira. Gai horien artean genero rola, indarkeria, arrazakeria... ateratzen dira.

Adibidez tertulietan, guk behintzat ba lantzen ditugu bai ala bai, ez? Nahiz eta umeek horri buruzko komentariarik ez egin, ba guk sartzen dugu horri buruzko komentario bat edo galdera moduan, gero eurek erantzuteke ere bai. Jo ba gehienbat adibidez tertulian atera izan dena izan da matxismoa, ba bueno... “Ijito kulturaren gizona gizona da, eta emakumeek egiten dute gizonak egiten duena”, ez? Beti esaten zuten, “pues yo quiero una que me haga caso” edo “yo quiero una

14 Esaterako lehen hezkuntzako lehen zikloko tertulia dialogiko batean, “oparia” hitza aukeratu zuten hiru ikasleek, eta elkarren arteko kontrasteari esker, hitz berdietik hirurek ezagutu zuten ea besteei zein opari jasotzea gustatuko zitzaie. Honi esker, ijito familiako ikasleak eta ikasturte hasieran marokotik etorritakoak opari berdina jaso nahiko luketela konturatu ziren. Hurrengo egun osoan zehar elkarrekin hitz egiten eta jolasten ikusi nituen, eta ordura arte gatazka ugari izan zituzten arren, horien maiztasuna asko jaitsi zela behatu ahal izan nuen, eta arazoren bat izan zutenean askoz azkarrago konpondu zutela.

para mandarla”... Ba hortikan hartuz ba ematen diogu buelta, eta askotan geure bizitzako adibide pertsonalak jartzen ditugu. (KK2-Irakaslea)

Askotan gaiak atera egiten diren arren, helduek bideratu ohi dituzte horietako hainbat ezbaian jarri daitezten. Horren aurrean ikasleek erraztasun handiagoak izaten dituzte komentario horiekin kontrastatzen dituzten iritziak partekatzeko, edota adostasuna adierazteko. Gidaritza lan horrek gai horiek eztabaidatu ahal izatea eragiten duen era berrean (elkarrizketa eta eraldaketa sortzen lagunduz), gehiegizko gidaritzak eta helduen “gidari” rola askotan errepikatzeak “entzun nahi dena” esatea eragin dezake. Hala ere, elkarrizketatutako irakasleek eta guraso batek horri balio positibo bat ere ematen zioten: “politikoki zuzen” bezala ulertzen dena “komun”-arentzat ona dena jakiteko pausu bat izan daitekeela aipatzen zutelako.

- Bestetik, tertulia dialogikoetan famili-kideek edota komunitateko kideek parte hartzea interakzioak, ekarpenak eta eztabaidak aberasteko balio duen faktorea dela ere agertu da.

Hauei esker, gertatzen denaren, pentsatzen denaren, esaten denaren... inguruan informazio askoz gehiago eskuratzeko balio du. Baina hori baino garrantzitsuago: euren artean tertulia batean hitz egiten hasi ahal diren gai batzuk, beste espazioetan hitz egiten hasi dira.

Familien formakuntzen eragina

Familien formakuntzari dagokionez, emaitza ezberdinak lortu dira alde batetik alfabetizazio saioetaz eta tertulia dialogiko literarioetaz hitz egitean (kontakizun komunikatiboa), eta bestetik Yale-ren gidari buruzko tertulia dialogikoari buruz hitz egitean (behaketa komunikatiboa).

Orokorrean azpimarra daiteke familien formakuntza azken urtean martxan jartzeak bereziki familia hauekin espazio eta denbora askoz gehiago konpartitzea eragin duela. Honek, eragin oso handia izan du eskolarengan, eta bereziki honekiko zein irakasleekiko familiek zuten pertzepzioarengan. Izan ere, askotan familien formakuntzetara joateak eskolaz, ikasleetaz, euren arazoetaz... hitz egiteko espazioak sortu ditu. Kasu askotan familiak formakuntzetara joatearen aitzakipean lehenago edo ondoren geratu izan dira ikasketa buruarekin zerbaitetaz hitz egiteko, edota formakuntzetan bertan egunerokotasuneko gai ugari atera dira, edo kexak edo proposamenak agertu dira...

Azken finean, famlientzako formakuntzak martxan jartzeak ez du soilik euren ahalduntze akademikoa lortzeko balio: eskolan parte-hartze ez-formalerako eremu bat bihurtu da ere familien formakuntza: “Yo, cuando había un problema entre algún miembro del claustro y alguna familia, yo

los espacios de la formación los utilizaba para hablar directamente con la familias, hablar directamente con los y las profes, y hacer que intercambiasen sus opiniones.” (KK1-Zuzendaritza)

Gainera formakuntza hauei esker, ikasketekiko zuten ikuspegia aldatzen hasi da. Besteak beste, euren seme alabek... erabiltzen dituzten fitxak egiten dituztenez, euri laguntzeko gaiagoak sentitzen dira, eta beste kasu askotan euren seme alabak dira haiei laguntzen dietenak. Esparru akademikoekiko zuten urruntasuna apur bat apaltzen hasi da horri esker, eta horren bidez eskolarekiko, euren seme alaben ikaspenekiko eta eskolan gertatzen denarekiko interesa aldatzen ari dela sumatu dute ikerketan parte-hartu duten pertsona ezberdinek.

Bestetik ere, atzerritik datozen eta hizkuntza ezagutzen ez zuten bi guraso formakuntza saioetan ere egoteak, kultura ezberdinetako gurasoak elkarren artean ezagutzen hastea eta euren artean elkar-eragiten hastea eragin du. Horrela ere, aurreiritzi asko eta bazterketa zein gatazken jatorri asko aldatzen hasi dira, eta hori ikasleen artean gertatzeaz gain, gurasoen artean ere gertatzen hasi da (esaterako, arabiar klaseak martxan jarri ziren ikasleentzat eta ijitoak ziren ikasle batzuk apuntatu ziren).

Irakasle batek kontatzen zidanaren arabera ikasleek ere ezberdin jokutzen dute euren gurasoak eskolan daudela jakitean (haur hezkuntzari buruz kontatzen zidan), baina beste kasuetan ere orokorrean ikasleek euren gurasoak eskolan zehar normaltasunaren barruak ikusteak ere honekiko eta honetan garatzen ari denarekiko garrantzia eta aitortza ematea gertatzen ari da. Horrela ere, bertan garatzen diren funtzionatzeko moduen (elkarrizketan oinarrituak), sustatzen diren neurrien eta balioen eraginkortasuna handitzen ari da.

Tertulia dialogikoetan ere, ikasleen kasuan bezala, komunikaziorako eskuratzen ari diren gaitasunez gain, gurasoekin ere hainbat gaiei buruz hitz egiteko balio zutela azpimarratzen zuen. Eta gai horietaz eztabaidatzeak, eta baliagarritasun xedea duten arrazoiketak esposatzen saiatzeak, aurreiritzi asko eta elkarbizitzan eragin zezaketen faktore asko ezbaian jartzeko aukerak sortzen zituela. Argi dago hala ere, familien jendarteratze prozesuaren sakontasuna dela eta, hau hurrekiko modu ezberdinean garatzen zela (ama batek umeak “moldagarriagoak” direla aipatzen zuen), baina hala ere, norberak ordura arte zituen ideien inguruan pentsatzea, eta “politikoki zuzena” dena erabiltzeko balio zuela. Hala ere, zuzendaritzako kideak azpimarratzen zuen, batzuetan ere tertulian testuinguru eroso sortzen dela (adibidez gutxiago daudenean), bakoitzak benetan buruan zuena esateko:

Al leer “El Lazarillo” en el primer capítulo hablando del padre... seguramente de origen

africano, pues ya empezamos con el tema de la inmigración, y tal... Y bueno, pues, gracias a eso te sitúas en cual es el entorno en el que vivimos, y sabemos que opiniones o que visiones de la realidad podemos tener y que nos pueden causar problemas para luego enfrentarlas... Y luego eso se ha tratado, y nos hemos dado cuenta de que las diferencias raciales, pues en Elejabarri las consideramos un factor enriquecedor. (KK1-Zuzendaritza)

Bestetik, Yale-ko gidari buruzko tertulia dialogikoaren inguruko behaketa komunikatibotik atera diren emaitzei dagokienean, batetik indarkeriaren gaia azaleratzeko balio izan duela azpimarratzen zuten ikertutako pertsonak, eta horren bidez bakoitzak zituen ikuspegiak kontrastatzeko balio izan zuela. Hala ere, horrek izandako eraginari buruzko pertzepzioan ezberdintasun ugari topatzen ziren bertan parte-hartutako familien eta irakasleen artean.

Alde batetik, familiek ez zioten eragin nabarmenik sumatzen, izan ere, eztabaidatzeko bai, "baina gero bakoitzak bere etxean gauzak bere erara egiten dituela" azpimarratzen zuten (BK1-Ama). Irakasleek bitartean ere azpimarratzen zuten uste zutela familiak ez direla oso kontziente zergatik egiten diren horrelako tertuliak, edota zein helbururekin. Ama batek ere aipatzen zuen askotan beste familia-kideak "irakasleek entzun nahi zutena esaten dutela", eta bere ustez horren arrazoi nagusienetakoa ere bazela irakurri eta eztabaidarako erabiltzen ari zen testu hori konplexua zela, presaka irakurri zela, gai berria eta beraz ezerosoa zela... (BK2-Ama).

Hala ere, hauteman ahal izan dugu eragin handirik ez izatearen ideia presente egon arren, eraginik izan duela. Familietako batzuk, tertulietan paper isilagoa izan arren, ondoren tertulietan atera diren hainbat hausnarketa eta neurri erabili dituzte. Esate baterako zuzendaritzako kideak kontaktzen zigun kasua horren adierazgarri oso aproposa izan daiteke: bi ikasleren artean (bata ijitoa eta bestea aurten atzerritik etorria) gertatu zen gatazka baten ondorioz, bata eta bestearen familiak asko haserretu ziren euren artean. Familia horietako bateko hainbat kide, Yale-ko gidari buruzko tertulian egon ziren, eta honetan proposatzen zen bezala jokatzeari erabaki zuten:

Vino el yayo, vinieron unas familias gitanas diciendo "como hemos comentado en las tertulias..." - había una que había estado en la tertulia y una que no - "yo creo que te lo tengo que decir. Además vengo a decírtelo." y el otro comentario del yayo era "como hemos hablado en las tertulias esto que ha pasado es inadmisibile pero primero te lo quiero comentar". Y gracias a esa interacción, a esa conversación que se ha tenido con ambas familias, yo creo que algo que podría haber sido hace tres años un conflicto de "bu esa familia tiene que abandonar la escuela por equis tiempo..." pues todo lo contrario: hemos conseguido que se sientan partícipe de la escuela. (KK1-Zuzendaritza)

Hala ere, jendarteratze prebentiboari begira, oraindik separazio handia ikusten zuten askok eskolan ikasleei esaten zaienaren eta etxean esaten zaienaren artean. Eta oraindik amildegi nabarmenagoa zen sexualitatea, etxeko indarkeria... bezalako gaiekin. Horregatik gai horiek ere mahai-gaineratzea beharrezkoa ikusi arren, polikiago joatea eta momentuz zuzenki behintzat ez lantzea lehenesten zen, familiak urruntzearen beldurrez.

Familien formakuntzak edukiz eta teknikoki hobetzeko beste erronka asko ere ikusten zituzten elkarrizketatu ezberdinek: ordutegia aldatu (erdi lo etortzen direlako), eskolako irakasleen rol hain markatuak apur bat gehiago zaindu tertuliak dialogikoagoak izateko, bakoitzaren beharretan gehiago zentratu, erritmoak ez fortzatu hainbeste...). Askok ere eraldaketari begira paper kontraesankorra zuen faktore bat ere aipatzen zuten: derrigortasuna. Alde batetik horren bidez eskolarekiko hurbiltzea, gehiago ezagutzea... lortzen zela ikusten zuten arren, familien formakuntzetara etortzen ziren familia asko “parte hartzeko gogo handirik gabe” etortzeak negatiboki eragiten duela nabarmentzen zuten. Horren eragina ez zen negatiboa elkarbizitzari eta indarkeriaren prebentzioari begira, baina aurrera-pausu ugari emateko baldintzak dezente baldintzatzen duen faktore bezala deskribatzen zuten.

Dena den, duela urtebete martxan jarritako Arrakastazko Hezkuntza Jarduera izanda, oraindik erronka asko geratzen direla azpimarratzen zuten denek, eta oraindik egiteko asko geratu arren, familien formakuntzei esker hauen eta eskolaren arteko hurbilketa nabaritzen dutela, eta horrekin “bukle” zahar asko (eskolan hasten ziren gatazkak, kanpoan handitzen zirenak eta dimentsio izugarriarekin bueltatzen zirenak, adibidez) gainditzen ari direla.

Komunitatearen parte-hartzearen eragina

Hasteko aipatu behar da eskola eta komunitateko beste hezkuntza elkarte zein eragileen arteko koordinazioaren ondorioz indarkeria oso neurri handi batean prebenitu dela. Izan ere, gatazken prebentziorako eredu dialogikoa, protokolo komunak gatazkek eztanda egiten dutenean, egoera ezberdinen aurrean jokatzeko era komunak... izateak ikasleen jendarteratze prozesuan eragiten duten eragileek mezu kontraesankorrak ez emititzea eragin du. Horrela, aurretik zegoen deskoordinazioa gainditu eta gatazken zein hauek sortu ahal dituzten faktoreen inguruko ikuspegi askoz zabalagoa lortu da.

Izan ere, koordinazio eta lan bateratu honi esker (komunikazio fluxu konstantean eta lan talde mistoen eraketan itzultzen dena bereziki), ikasleetako bakoitzaren eta euren familia zein testuinguruaren inguruko informazio askoz zabalago eta zehatzagoa lortzen ari da. Horrela, jokaera

zehatz batzuk, gatazka zehatz batzuk... eragin ditzaketen egoerak lehenago identifikatu eta horien aurrean jokatzeko estrategia bateratuak planteatzeko aukera askoz handiagoak lortzen ari dira.

Genero indarkeriaren prebentzioari begira, lan hori oraindik eta eraginkorragoa da esplizituki Jendarteratze Prebentiboari begirako proposamen zehatzak komunitate osoaren artean adostu eta modu koordinatuan aurrera eramaten direnean. Esate baterako, hezkidetza batzorde mistoa sortu eta bertan guraso bat, jantokiko begirale bat, irakasleak, zuzendaritzako kideak, bolondres bat eta arratsaldeko aisialdi elkarteko kide bat integratu zituenetik sortu diren proposamenei esker Ikas Komunitateko eragile guztiek (familiek ezik) modu bateratuan jokatzeko dute, indarkerian oinarritzen ez diren harremanak sustatu, eta indarkeriaren erabilera egiten dutenak gaitzetsiz.

Komunitateko kideen parte-hartzearen barruan, familien parte-hartzea funtsezkoa da indarkeriaren prebentzioari begira. Eurak eskolarekiko inplikazioak edo inplikazio ezak berak ikasleen jarreran eragina du. Ama batek azpimarratzen zuen bezala, familiak eskolan daudenean ikasleak lasaitu egiten dira: “Igual al vernos aquí... entonces pues como que se calman más” (BK1-Ama). Parte-hartze hori talde interaktiboetan, tertulia dialogikoetan... gauzatzen denean, euren ekarpenek ikuspegi aberastasuna ematen diote, dinamizazioan eta giroan laguntzen dute, eta erreferente bezala jokatzeko dute. Guzti honi esker, eurek proiektua barnetik bizitzen dute, eta eurek atxikimendu handiagoa sentitzeaz gain, euren jakintza tazitoaren bidez, jarduerak hobetzeko proposamenak ere egiten dituzte.

Askotan izaten den aurreiritziaren kontrara, kanpoan “gatazkatsu” bezala estereotipatzen diren familietako askok laguntza oso baliagarriak eskaini ahal dituzte heziguneraren barruan, eta hauetan gatazkak prebenitzeko funtsezko ekarpenak egin ahal dituzte, baldin eta hori egiteko testuinguru eta harreman aproposak eratzen badira.

El año pasado cuando empezamos a organizar la formación de familiares (...) a la hora de dividir los grupos tenía problemas... Agentes del barrio me decían “esta familia ha tenido un problema, esta está tal cual, ten cuidado con este que se van a liar... (...) Yo ahí tenía mucho miedo... tenía tanto miedo que incluso los grupos de las familias... no hicimos como se suele hacer en las escuelas para adultos: grupo de alfabetización, grupo de lectores, graduado... Y por ese miedo dejé a una familia en concreto. “vale, estos son los grupos que te daba, son grupos de acuerdo a las características de las necesidades que tenían las familias...” y ella me cogió y me dijo “ay no, ¡eso no!”. Les dí las dos hojas y ellas me hicieron la combinación de los grupos. Ellos decidieron quienes estaban. Pues ese grupo salió *super* heterogéneo, pero las familias

estaban agusto porque ellos habían decidido los grupos, y han funcionado bastante bien. (KK1-Zuzendaritza)

Gainera, kanpoan gatazkak izan ohi dituzten familiak ere bai eskolan parte-hartzera gonbidatu, atea edozertarako irekiak mantendu eta poliki gauza ezberdinetan inplikatzeko lortzearen bidez eskola honetatik kanpo egon ahal diren arazoetatik at dagoen “santuari” bezala erabiltzen ari dira. Beste irakasle baten hitzetan, askotan bereganatu eta beste irakasleengan jotzen dute familiek, gatazkak prebenitzeko edo gestionatzeko tresnak eskatuz (KK4-Irakaslea)

Familien eskolako parte-hartzeak ere kasu batzuetan gatazken prebentzioari begira betidanik ikasitakoa zalantzan jarri, ikuspegia zabaldu eta “ate berriak irekitzeko” balio izan du. Horrela adierazten zuen, urtean zehar eskolan nahiko inplikatu ibili den (eta eskolara aurten heldu den) ama batek: “Entonces, yo creo que el estar aquí... el ver lo que hay... me ha servido, me ha abierto la puerta para poder hacer ese curso. Que no lo hago obligada ni nada ¡eh! Lo hago porque me... es un poco para mí también, para hacer eso en casa también” (KK2-Ama). Bitartekaritza komunitarioari buruzko kurtso batera apuntatu berri den ama honek kasuak ere adierazten du, eskolan bertan gatazken prebentzioari begira ikasten dena beste testuinguruetan aplikatu nahi izatea ekartzen duela, baita kontuan hartzeko gai bezala presente izatea¹⁵.

Irakasleen formakuntza dialogikoaren eragina

Irakasleen formakuntza dialogikoek paper zentrala jokatzen dute genero indarkeriaren prebentzioari dagokionean. Horren arrazoi nagusia da, formakuntza dialogiko honek irakasleen arteko hausnarketa, prestaketa, kontsentu eta erabakietarako espazioa zabaltzen duela. Besteak beste, irakasleen formakuntza dialogikoko saioen inguruan eta espezifikoki behaketa komunikatiboaren bidez jendarteratze prebentiboari buruzko saioen inguruan hitz egin ondoren, bereziki ondorengo faktore hauek dute eragina genero indarkeriaren prebentzian espezifikoki, eta edozein indarkeriaren prebentzian orokorki:

- Ebidentzia zientifikoetan oinarritutako formakuntza jasotzen da. Horren bidez, indarkeriari (orokorrean) eta genero indarkeriari (partikularrean) begirako ezagutzan sakondu daiteke, bai euren kausa errealei (eta ez sinesmenei) buruzko azken ikerketak ezagutzuz, eta gure jakintzekin

15 Dena den, familien formakuntzaren AHJ-rekin gertatzen den bezala, modu progresiboan ezartzen ari den jardueraren heinean, oraindik lan eta erronka asko ikusten dituzte ikerketan parte hartu duten pertsonak. “Familien frentea” izena jartzen dioten erronka honen barruan, eraldaketari begira pisu handia ematen diote familien hezkuntza parte-hartzea normalizatu eta egonkortzeari batetik, eta bestetik lan talde mistoen bidez, eskolaren eta bere funtzionamenduaren erabakietan parte-har dezaten lortzeari.

alderatuz. Besteak beste Jendarteratze Prebentiboa bezalako proposamenak, eta horri begira eraginkorrak direla baieztatu diren esperientziak ezagutzeko espazio egokiak dira.

- Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak eta gainontzeko esku-hartze hezitzaileak hobetzeko ideiak ateratzen dira. Tertulia dialogiko hauetan, landutako teoria Arrakastazko Hezkuntza Jarduerekin lotzen da, eguneroko praktikarekin, talde interaktiboetan, tertulia dialogikoetan, familiarekin... aurrera eramaten diren jarrerekin, zalantzekin, teknikekin lotuz. Tertulia hauetan garatzen diren hausnarketei esker, profesionalen jakintza tazittoa aktibatzen da, eta horren bidez, irakaskuntza prozesua hobetzeko balio dezakeen jakintza kolektiboki eraikitzen da.
- Eguneroko praktika eta teoria uztartzeko balio dute. Tertulia dialogikoen formatuak, aukeratutako atalak komentatzean, eguneroko adibideak mahai-gaineratzen direla eragiten du, kasu askotan testuak dioena zalantzan jarriz eta beste askotan hori baieztatuz burura etortzen zaien adibideen bidez.
- Erabakiak kolektibizatzen dira (hau da, denen ardura bihurtzen da eskolako problematikari erantzutea) eta horri esker beldur eta zalantza individual ugari gaintzeko baldintzak sortzen dira. Hainbat kontakizunetan irakasle ezberdinek eta ama batek aipatu dute modu zehatz batean jokatzeko edo hainbat gai ateratzeko beldurra (edota zalantzak) zirela aurrera egiteko oztopo bezala funtzionatzen zuten faktoreetako bat. Horren aurrean zer egin, noiz martxan jarri, nola egin, noiz aipatu... norberaren esku geratzen bada, hori aurrera eramateko probabilitatea asko jaisten da. Berriz, lantzen ari den gaia dela eta, beldur horiek, zalantza horiek... taldeari komentatzen zaizkionean, denen artean horien aurrean zelan jokatu pentsatzeko aukera askoz handiagoak daude. Formakuntza dialogikoaren bidez, “pertsona horrena” bezala etiketatua egon ahal zen arazo edota egoera bat, irakasleen osotasunaren ardura bihurtzen da. Horri esker, irakasle guztien artean modu bateratuan jokatzeko moduak lortzen dira. Eta horrek, aurretik aipatu bezala, esku-hartzearen eraginkortasuna nabarmen handitzen du.
- Genero prebentzioaren sustapenean, beste eragileak (ikasleak, familiak...) subjektu aktibo bihurtzeko tresnak sortzeko balio dute. Tertulia dialogikoen bidez, irakasleek eztabaida eta hausnarketen bidez zein ezagututako iturri zientifikoen bidez, jendarteratze prebentiborako neurri eta eskema eraginkorrak lortu ahal dituzte. Baina horretaz gain, irakasleak eraldaketa horren subjektu izatetik, ikasleak, komunitateko kideak eta familiak eraldaketa horren bultzatzaile eta subjektu bilakatzeko eraginkorrak izaten ari diren teknikak eta moldeak partekatzen dira. Horrela, behin eta berriz aipatzen dugun prebentzio hau, denen ardura bezala bizitzeko eta praktikatzeko bidean, pausu garrantzitsuak lortzen dira.

Baina hala ere, askotan eskolako irakasleen indar guztiak ikasleekiko eta Ikas Komunitatearen proiektuarekiko bulkatzen dira, eta ez da irakasleen arteko harremana, prestakuntza, erosotasuna, adostasuna, sintonia, elkar-zaintza... zaintzeko jarduteko modu eraginkorrik lortzen. Eskola inguratzen duen testuinguruak, eskolaren barruko dinamika azkar eta neketsuak eta administratziotik sustatzen diren proiektuaren erritmo bizkorrek askotan ez diote behar besteko lehentasuna ematen irakasle talde sendo bat berregin eta kontsentsu sendoak berreraikitzeari.

Ikerketan parte hartu duten pertsona gehienek irakasle taldearen dinamikan aldaketa batzuk beharrezkoak ikusten dituela azpimarratu dute, proiektuak salto kualitatibo bat eman ahal izateko. Besteak beste, eraldaketa sendo eta sakonagoak lortu ahal izateko irakasleen formakuntzei begira ondorengo lau faktoreak izan dira gehien errepikatu direnak, egun Ikas Komunitatearen proiektuaren garapenean oztopo direnak, eta beraz eraldatzea beharrezko ikusten dituztenak: maiztasuna¹⁶, epeak¹⁷, izaera dialogikoa bermatzea¹⁸ eta aldaketei erresistentzia gainditzea¹⁹.

16 Genero indarkeriaren prebentzioari begirako formakuntza saio dialogikoen maiztasuna oso txikia izaten da, eta oso puntualki lantzen denez, momentuko egoeraren eta lortzen ari diren edo lortzen ari ez diren emaitzen inguruko balorazio sakonak egin ahal izatea zaildu egiten da.

17 Jendarteratze Prebentiboak momentuko eraginak izan ditzake, bereziki Elejabarri eskolak zuena bezalako testuinguruaren aurrean. Hala ere, Jendarteratze Prebentiboa modu eraginkorrean bere osotasunean martxan jartzen joan ahal izateko, lan jarrai eta sakona egitea lortu behar da. Ikerketan parte-hartu duten pertsona askok azpimarratu dute gatazken prebentzio eta konponbiderako eredu dialogikoa “logika” bezala eta gatazkek agertzean jokatzen modu bezala erabiltzen zutela. Horrek, emaitza oso nabarmenak ekarri ditu, baina beste pausu sakonago bat eman ahal izateko, eta indarkeriaren prebentzioa etorkizunari begirako izan dadin (ikasle hauen etorkizuneko bizitzari begira, eta ez bakarrik eskolan gatazkek ekiditeari begira), genero indarkeriaren prebentzioa behar dituen epe eta denborak eskainiz landu beharko da. Eta horretarako, administrazioak ezartzen dituen epeak berrikustea eta horien aurrean presaka erreakzionatzeko joerak izan ditzakeen ondorioak (irakasleen ekarpen eta ezadostasunak behar bezain beste kontuan ez hartzea, irakasleen arteko tentsio harremana, kontsentsuak ez sendotzea, egitekoak bakoitzaren esku uztea, lanketak puntualki eta jarraitasun handirik gabe egitea...) baloratzea beharrezkoa da.,

18 Nazioarteko komunitate zientifikoak zein Ikas Komunitateen sustatzaile “makro”-ek baieztatzen dituzten testuen inguruan ezadostasunak, zalantzak eta teoria-praktika arteko distantzia sentsazioak sortzen direnean, behatu ahal izan dut (eta irakasleek ere horrela baieztatu zidaten) polarizazioarako joera egoten dela. Alde batetik “aditu” papera hartzen duten pertsonak testuak dioenaren defentsa egiten dutela, arrazoi baliagarritasuna frogatzeko edota azaltzeko formak erabili beharrean, nazioarteko komunitate zientifikoaren ikerketen estatusa remarkatuz (nahiz eta testuak dioena benetan probatua eta baliagarria izan). Horrek bestetik, ezadostasun hori edota zalantzak partekatzen dituzten irakasleen artean aldaketekiko erresistentzia eta iturri zientifiko internazionalerako eszeptizismoa eragiten du. Horrela, teoria eta praktika uztartu beharrean, “teoriak hori esango du, baina nire klaseko errealtatean hori ezin da aplikatu” bezalako posizioak sortzen dira. Beraz, irakasleen arteko harremanen elkar-zaintza, kohesio eta kontsentsua, norabide berean doan jarduna, teoria eta praktikaren batura... lortu ahal izateko, irakasleen formakuntzetan egun dauden botere harreman eta posizio polarizatuak eraldatzeko bitartekoak martxan jarri beharko dira. Eta beste alde batetik, teoriaren atal zurruna (edo edozein kontestutan aplikatu daitekeena) eta atal malgua (bakoitzak bere klasean aplikatzeko moldatu beharko duena) ondo bereziz lantzea komeniko litzateke, horrela bien arteko nahasketak eta gaizki ulertuak ekiditeko.

19 Ezinbestekoa da, egun oraindik presente dauden aldaketei mesfidantza eta erresistentziak gainditzeko testuinguru dialogiko gehiago sortzea. Horretarako, batetik unibertsitateko nazioarteko komunitate zientifikoaren hezkuntzari buruzko azken ikerketen emaitzetan oinarritutako prestakuntza eskaintzea ezinbestekoa da, iraganean erabiltzen

5. ONDORIOAK

Amaitzeko, ondorio nagusi bezala, baieztatu dezakegu Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak eragin oso nabarmena izan dutela eskolako elkarbizitzarengan, hau hobetzeari begira. Are gehiago, eskolako eragile ezberdinek azpimarratu egin dute jarduera hauek izan direla bereziki (eta ez hainbeste irakasleen jarrera, kanpo-testuingurua...) aldaketaren funtsa eragin dutenak. Honi esker, gatazkak agertzean hauek konpontzeko erraztasuna handitzeaz gain, gatazka hauen kopuruaren eta dimentsioaren gutxitze oso nabarmena nabaritu ahal izan dugu. Horrela, baieztatu dezakegu Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak gatazken prebentzioari begira eraginkorrak izaten ari direla aztertu dugun testuinguruan.

Bereziki elkarrizketa espazioen zabalpena nabarmendu behar dugu. Izan ere, logika hau izan da Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak poliki martxan jartzen joan diren bitartean eskolako eremuetako bakoitzean aplikatzen saiatu diren filosofia. Honi esker, berdinen arteko elkarrizketarako espazioek harrera ona izan dutela baieztatu ahal izan dugu. Gatazkak sortu izan diren momentuei begira nabaritu dira aldaketa nabarmenenak, hauetan inplikatuak egon direnek hitz egiteko eta akordioetara heltzeko disposizio askoz hobea dute egun, duela hiru urterekin alderatuz.

Baina ikerketaren emaitzetan garbi adierazi den bezala, tertulia dialogikoak, familien formakuntzak eta komunitatearen parte-hartzea bezalako jarduerari esker, gatazka hauetaz eta horien jatorrian egon daitezkeen faktoreen inguruan hitz egiten hasi ahal izan da (aurreiritzi arrazistak, mesfidantzak, adostasun ezak, gatazkak konpontzeko tresna falta...). Gainera, horiek aniztasun bat bermatzen saiatuz eta ezberdinen arteko elkarrizketa oinarri izanez (inplikatuak egon ahal den inor baztertzeko ekidinez), gatazkak askoz modu eraginkorragoan konpondu eta prebenitu ahal izan dira. Ez da berdina gatazka baten erroa izan ahal dena irakasleen eta kultura jakin bateko familien artean identifikatzea, edota kultura ezberdinetako familiak eta komunitateko beste kideek ere horretan parte hartzea: ikuspegi askoz zabalago eta zuzenagoa lor daiteke.

Orokorrean, oso nabarmena izan da azken urteetan lortu den gatazken ikusaraztea. Aurretik zegoen inbisibilizaziorako joera, beste alde batera begiratzekoa, eskolan “ezer gertatu ez dadin” lortzen saiatu, baina eskolatik kanpo gertatzen denarekiko ez inplikatzeko... lehengo egoeraren

ziren, eta ezberdintasunak mantendu edota areagotzeko balio zuten jardunak ez birproduzitzeko. Eta bestetik, eskolen barruan irakasleen arteko elkar-ezagutza, harreman sana mantentzea, gehiegizko lan kargarik ez izatea, formakuntza saio dialogikoak maiztasunarekin egitea, elkar laguntzea eta elkarrengan konfiantza eta babesa lortzea, egungo tentsioa gaitzetzeko ezinbestekoa da. Horretarako gako argi bat irakasleen egonkortasuna (urtero hezigunez aldatzen ez ibiltzea) da, eta bestea nire ustez, elkarrenganako zaintzari izan beharko lukeen pisua eman, eta hori bermatzeko mekanismoak martxan jartzea.

ezaugarriak ziren. Gainera, barruan sortu egiten zen gatazka kanpoan elikatu egiten zen, eta eskolara askoz dimentsio handiagoarekin bueltatzen zen. Arrakastazko Hezkuntza Jarduerari esker, eta bereziki gai hau esplizituki ikasketetatik banatu gabe lantzeari esker, “azpiko marejada” hauek askoz gehiago ikusi egiten dira, eta horrela askoz errezagoa da identifikatu eta konpontzea.

Gainera, biktimaren edo hau defendatzeko bere kideen salaketak, gai ezberdinen inguruko ikuspuntuak, bakoitzak egiten dituen ekarpenak, dituen kezkek, proposamenak... kontuan hartzen direnean eraldaketa askoz eraginkorragoa bihurtzen dela ikusi ahal izan dugu.

Dena den, badira hainbat aspektu, oraindik Elejabarri eskolan erronka bezala ulertzen ditugunak. Izan ere, lehenengo hiru urte hauetan zehar, Arrakastazko Hezkuntza Jarduerak martxan jartzea lortu da, eta orain, pausu sakonago bat emateko beharra ikusten dute irakasle, guraso... ezberdinek. Pausu honen muinean proiektua beraren eta bere helburuen ezagutza nabarmendu dezakegu: komunitateko kide guztiek Ikas Komunitateen proiektua zer den, zer lortu nahi den eta horretarako zer egiten den ezagutzea. Horren bidez, egiten dena hobeto ezagutzeari esker, hau hobeto ulertu eta honetan egin ditzaketen ekarpenak deskubritzeko balio dezake. Baita familiek adibidez euren parte-hartzea “derrigortasun” perfil horretatik, borondatezkoa den eta zentzua sortzen duen parte-hartze mota batera igarotzea lor liteke.

Hortaz gain, irakasleen arteko elkar-zaintzarako mekanismoak eta funtzionatzeko moduak hobeto zehaztea komeniko litzateke, baita irakasleen egonkortasuna eta proiektuarekiko zein esku-hartze zehatzekiko kontsentsuak berreraikitzea. Irakasleen formakuntza saioetan ere, dialogikotasuna bermatzeko mekanismoek, hauetatik sortzen diren eraldaketak eraginkorragoak eta kontsentsuzkoagoak izatea ekarri ahalko lukete. Amaitzeko, genero indarkeriaren prebentzioa oraindik eraginkorragoa eta bizi osorakoa izan dadin, genero ikuspegia txertatu eta Jendarteratze Prebentiborako neurriak jardueretako bakoitzean txertatzeko hausnarketari ekitea eskolak duen erronka nagusietako bat dela uste dut.

Lanari bukaera emateko, esan beharra dugu, Gizarte Hezitzaile bezala, Ikas Komunitatea profesionalki hazteko izugarritzko proiektua dela, eta bertatik asko ikasi ahal izateaz gain, esku-hartzeko eremu oso garrantzitsua eta eraginkorra bihurtu daitekeela. Horregatik, Gizarte Hezitzaileok Ikas Komunitateetan gure presentzia normalizatzea lortu beharko genukeela uste dut, eta ez soilik bolondres bezala, baizik eta bertan lanean egoteko. Horrela, komunitate osoari begirako esku-hartze askoz eraginkorragoak bultzatu ahalko genituzkeela uste dut, eta horren bidez, eskolan hasten ari den eraldaketa hau, komunitate osora eta auzoko testuingurura azkarrago zabaltzea.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Aubert, A., Flecha, A., García, C., Flecha, R., Racionero, S. (2010). *Aprendizaje dialógico en la sociedad de la información*. Barcelona: Hipatia Editorial.

Auvert, A., Duque, E., Fisas, M. & Valls, R. (2004). *Dialogar y transformar. Pedagogía del siglo XXI*. Barcelona: Graó.

Beck, U., Giddens, & A., Lash. (1997). *Modernización reflexiva. Política, tradición y estética en el orden social moderno*. Madrid: Alianza Universidad.

Bell, D. (1976). *The cultural contradictions of Capitalism*. New York: Basic Books.

Castells, M. (1998). *La era de la información. El poder de la identidad*. Madrid. Alianza Editorial.

Castells, M. (2005). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura*. (6. ed.) Buenos Aires: Siglo XXI Editores.

CREA (2013). *Formación en comunidades de aprendizaje*. Barcelona: Universitat de Barcelona.

Elboj, C. & Flecha, A. (2002). Mujeres, aprendizaje dialógico y transformación social. *Contextos educativos*, 5, 59-172.

Elboj, C. & Gomez, J (2001). El giro dialógico de las ciencias sociales. *Acciones e investigaciones sociales*, 12, 77-94.

Eurostat (2012). *Migration and migrant population statistics*. European Union.

Flecha, A., Melgar, P., Oliver, E., & Pulido, C. (2010). Socialización preventiva en las Comunidades de Aprendizaje. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 67, 89-100.

Flecha, A., Pugvert, L., & Redondo, G. (2005). Socialización preventiva de la violencia de género. *Feminismo/s*, 6, 107-120.

Freire, P. (1970). *Pedagogía del Oprimido*. Buenos Aires: Siglo XXI Editores.

Giddens, A. (1996). *Las consecuencias perversas de la modernidad: modernidad, contingencia y riesgo*. Barcelona: Anthropos Editorial.

- Gomez, J. (2004). *El amor en la sociedad del riesgo*. Barcelona: El Roure.
- Gomez, J., Latorre, A., Sanchez, M., & Flecha, R. (2006). *Metodología Comunicativa Crítica*. Barcelona: El Roure.
- Gorz, A. (1995). *Metamorfosis del trabajo, Búsqueda del sentido, Crítica de la razón económica*. Madrid: Editorial sistema.
- Habermas, J. (1987). *Teoría de la Acción Comunicativa. I, Racionalidad de la acción*. Madrid: Taurus.
- Lincoln, Y.S. & Guba, E.G. (1985). *Naturalistic inquiry*. Beberly Hills: Sage.
- Melgar, P. (2009). *Trenquem el silenci. Superación de las relaciones afectivas y sexuales abusivas por parte de las mujeres víctimas de violencia de género*. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- Oliver, E. & Valls, R. (2004). *Violencia de género. Investigaciones sobre quiénes, por qué y cómo superarla*. Barcelona: El Roure.
- Puigvert, L. (2001). *Las otras mujeres*. Barcelona: El Roure.
- Silverman, J.G. (2001). Dating violence against girls and associated substance use, unhealthy weight control, sexual risk behavior, pregnancy and suicidality. *Journal American Medical Association*, 286(5), 572-579.
- Valls, M.R. (1999). Comudedes de aprendizaje. Una práctica educativa de aprendizaje dialógico para la sociedad de la información. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- Valls, R, Puigvert, L., & Duque, E. (2008). Gender violence among teenagers. *Violence against Women*, 14 (7), 759-785.
- Willis, P. (1994). *Nuevas Perspectivas Criticas en Educación*. Barcelona: Paidós.